EXPOSICION **ERAKUSKETA**

"MUJER Y REPÚBLICA"
"EMAKUME ETA ERREPUBLIKA"

GUIA de RESEÑAS BIOGRÁFICAS
BIOGRAFIA-AIPAMEN GIDA

Esta guía es de uso exclusivo para recorrer la exposición. En el caso de que le interesara hacerse con un ejemplar, solicítelo a cualquier miembro de la asociación. Muchas gracias.

Erakusketaren jarraipena egiteko baino ez da gida hau. Ale bat zeuretzat nahi baduzu, Elkarteko edozeini eskatzea aski duzu. Mila esker

Por más que algunos libros y manuales se empeñen en eludir o tergiversar, las mujeres también han sido protagonistas de la historia.

La Segunda República fue una ocasión de liberación y progreso para las mujeres españolas, no sólo por la instauración del sufragio femenino en la Constitución de 1931, sino por el protagonismo que éstas adquieren en los más diversos ámbitos de la vida social. La guerra civil y el triunfo de la reacción suponen un traumático corte y vuelta atrás en tan rápida evolución.

Las mujeres fueron privadas de los derechos conseguidos y muchas reprimidas con intensidad hasta verse reducidas al papel que tradicionalmente les asigna la mentalidad integrista del franquismo imperante. Todas perdieron libertades y derechos, pero las trabajadoras, las maestras y las profesoras sufrieron quizás una mayor represión.

Hacer visibles a aquellas que vivieron un papel destacado durante la II Republica, guerra civil y posguerra españolas, así como a las cientos de miles que, desde el anonimato sufrieron silenciosamente, es el objetivo de esta exposición.

A todas ellas nuestro homenaje de agradecimiento.

Emakumeak ere historian protagonista izan dira, nahiz eta era bateko eta besteko liburuak diren, gai horretan, ezjakinarena egin edota edukia bihurritzen dutenak.

Bigarren Errepublikarena askapen- eta aurrerabide-gune izan zen Espainiako emakumeentzat, ez bakarrik 1931ko Konstituzioak haien boto-eskubidea indarrean jarri zuelako, baizik eta emakumeek gizarte-jarduera zabal-zabaletan hartu zuten indarragatik. Gerra zibila bera eta atzerakoien garaipena eten larria eta atzerakada gertatu ziren halako aurrerabide ederrean.

Irabazitako eskubideak ukatu egin zitzaizkien emakumeei, eta haietako asko frankismo atzerakoiak ezarritako ohiko jardueratara mugatu beharrean gertatu ziren era gogorrean. Guztiek galdu zituzten askapenak eta eskubideak, baina errepresiorik zakarrena langileek, maistrek eta irakasleek jasan zuten.

Bigarren Errepublikan, gerra zibilean eta gerra ostean gehien nabarmendu zirenak, eta, era berean, anonimotasunean sufrimendua jasan zuten ehun milaka emakumeak ezagutaraztea da erakusketa honen asmoa.

Guztiei eskaintzen diegu esker ona eta omena.

AMAYA TELLO LANDETA (Madrid 1920)

Conocida como "Tellito", nació en Madrid el 2 de septiembre de 1920. Tenía 15 años al estallar la guerra civil, se alistó en las Juventudes Socialistas Unificadas e inmediatamente se lanzó a la defensa de Madrid participando seguidamente, siempre como miliciana en diferentes batallas en Madrid, Toledo, Albacete y Extremadura, formando así mismo, parte del grupo de propaganda en defensa de la República.

Se casó con un soldado republicano que murió en el frente y terminada la guerra regresó a Madrid con intención de pasar desapercibida. Un familiar la previno de que la policía franquista seguía su pista ya que la sabían relacionada con las célebres TRECE ROSAS ROJAS que fueron fusiladas en octubre/noviembre de 1936 ante las tapias del conocido cementerio madrileño del Este. En 1939 consiguió salir de Madrid y marchó a Zaragoza donde trabajó de modista y conoció a Ciriaco Parraga, pintor-retratista con quien se casó y marcharon a Bilbao donde se instaló definitivamente y tuvo varios hijos. Mantiene intactas sus ideas republicanas. La fotografía que aquí se expone sirvió como portada al semanario "Estampa" del 31 de octubre de 1936.

"Tellito" izenez ezaguna, Madrilen jaio zen 1920ko irailaren 2an. 15 urte zituen gerra hasi zenean, eta JSU-etan izena eman ondoren, berehala ekin zion Madrilen defentsari Alto de los Leones izenekoan. Era jarraian, miliziano gisa parte hartu zuen Madrilen, Toledon, Albaceten eta Extremaduran izandako hainbat batailatan; era berean, Errepublikaren aldeko defentsarako propaganda-taldeko partaidea izan zen.

Frontean hil zen soldadu errepublikar batekin ezkondu zen, eta gerra amaitu zenean, Madrilera itzuli zen, inoren aurrean ez nabarmentzeko asmoz. Senitarteko batek ohartarazi zion polizia frankista haren arrastoaren atzetik zebilela, bazekielako lotura zeukala 1936ko urrian/azaroan Ekialdeko hilerri madrildar ezagunaren pareten aurrean fusilatu zituzten HAMAHIRU ARROSA GORRI ezagunekin. 1940ean lortu zuen Madriletik ateratzea eta Zaragozara abiatu zen. Bertan jostun lanak egin zituen eta Ciriaco Parraga margolari erretratugilea ezagutu zuen. Harekin ezkondu eta Bilbora abiatu ziren. Bertan instalatu ziren eta han ere jaio ziren bere seme-alabak. Bere hartan mantentzen ditu ideia errepublikarrak.

ANDRÉE DE JONGH (Schaerbeek 1916 - Bruselas 2007)

Conocida como Dedée fue una enfermera, integrante de la resistencia belga, que organizó la Red Comète para la fuga de soldados aliados durante la II Guerra Mundial.
Cuando los nazis invadieron Bélgica en mayo de 1940, Andrée se instaló en Bruselas, donde con ayuda de su padre pasó un año preparando una red para la fuga de soldados aliados capturados.
En agosto de 1941, se presentó en el consulado británico en Bilbao con el fin de obtener el apoyo del M19 junto con un soldado británico y dos voluntarios belgas, con quienes viajó en tren, pasando por Paris hasta Bayona y luego cruzando a pie los Pirineos en colaboración con el grupo vasco que dirigieran Kattalin Agirre y Florentino Goikoetxea, imprescindible para atravesar la frontera a través del Bidasoa. Por rutas similares, llegaron luego al consulado británico en Madrid y desde allí a Gibraltar.
400 militares aliados escaparon desde Bélgica, de los cuales Andrée acompañó durante todo el viaje a 118.
La Gestapo capturó a su padre, Frédéric de Jongh, en Paris, en junio de 1943 y lo ejecutó. Otros integrantes de la red fueron detenidos, 23 de los cuales también fueron ejecutados. Andrée fue a su vez capturada en enero de 1944, pero la Red Comète siguió funcionando y logró la evasión de otros 400 prisioneros.
Los nazis, sin sospechar que era Andrée la jefe de la red, después de mantenerla en la prisión de Fresnes, la enviaron al campo de concentración de Ravensbrück. Fue liberada por las tropas soviéticas el 30 de abril de 1945.

Dedée izenez ezaguna, erizaina izan zen, Belgikako erresistentziako kidea, eta Red Comète antolatu zuen, II. Mundu Gerrako soldadu aliatuen iheserako.
Naziek Belgika inbaditu zutenean, 1940ko maiatzean, Andrée Bruselasera joan zen, eta han, bere aitaren laguntzaz, sare bat prestatzen ari izan zen urtebetez, harrapatzen zituzten soldadu aliatuek ihes egin zezaten.
1941eko abuztuan, Bilboko kontsuletxe britainiarrean aurkeztu zen, M19ren babesa lortzeko asmoz. Soldadu britainiar batekin eta bi boluntario belgikarrekin joan zen, trenez, Parisetik igaro eta Baionaraino. Eta gero, Pirinioak oinez gurutzatu behar izan zituzten, Kattalin Agirrek eta Florentino Goikoetxeak zuzentzen zuten talde euskaldunen laguntzaz, horien laguntza ezinbestekoa baitzen muga Bidasoan barrena zeharkatzeko. Antzeko bideetatik, gero, Madrileko kontsuletxe britainiarrera iritsi ziren, eta handik, Gibraltarrera.
400 militar aliatuk ihes egin zuten Belgikatik. Horietatik, 118ri lagundu zien Andréek bidaia osoan.
Gestapok bere aita Frédéric de Jongh atzeman zuen Parisen, 1943ko ekainean, eta exekutatu egin zuten. Sareko beste kide batzuk ere atxilotu zituzten, eta horietako 23 ere exekutatu egin zituzten. Andrée ere 1944ko urtarrilean atzeman zuten, baina Red Comètek aurrera egin zuen, eta beste 400 presok ihes egitea lortu zuen.
Naziek ez zuten susmorik Andrée sareko burua zela, eta Fresneseko presondegian eduki ondoren, Ravensbrück-eko kontzentrazio-eremura eraman zuten. Tropa sobietarrek askatu zuten 1945eko apirilaren 30ean.

AURORA ARNAIZ AMIGO (Sestao 1913)

Hija de un sindicalista, se destacó pronto en la vida política y cultural. Militante socialista, luchó activamente durante al guerra civil y sufrió la muerte de un hijo recién nacido en la cárcel, antes de partir al exilio.

En México reanudó sus estudios de Derecho, y logró ser la primera mujer catedrática del país, en la Universidad Nacional Autónoma de México (UNAM), universidad con la que todavía colabora y desde donde ha desarrollado numerosos estudios y publicaciones especializadas en Derecho y Ciencias Políticas. Es autora de una amplia bibliografía en el ámbito del derecho, un libro de memorias y varios libros inéditos de poesía y prosa poética. Aún hoy, a sus 92 años sigue siendo una reputada experta en Derecho Constitucional.

Sestaon jaio zen 1913an, sindikalista baten alaba, laster nabarmendu zen politika eta kultura alorrean. Militante sozialista, aktiboki egin zuen borroka gerra zibilean eta erbestera joan aurretik, kartzelan zegoela, seme jaioberriaren heriotza jasan behar izan zuen.

Mexikon berriro hasi zen Zuzenbide ikasketak egiten eta herrialde hartako lehen emakume katedratikoa izatea lortu zuen Mexikoko Unibertsitate Nazional autonomoan (UNAM); gaur egun oraindik ere lan egiten du unibertsitate horrekin, eta bertatik eraman ditu aurrera Zuzenbidean eta Zientzia Politikoetan espezializatutako ikerlan eta argitarapen ugari. Zuzenbidearen alorrean bibliografia zabalaren egilea dugu, bai eta memoria-liburu batena eta argitaratu gabeko poesia eta prosa poetikoko hainbat libururena ere. Gaur egun, bere 92 urterekin, oraindik ere aditu entzutetsua izaten segitzen du Zuzenbide Konstituzionalean.

BALENDIÑE ALBIZU AIZPURUA (Zumaia 1914 – 2002)

***O**lerkaria eta idazlea, ideologia jeltzaleko merkataritza ontzidiko kapitain baten alaba, hamalau urte zituela hasi zen Zumaian bizi zen Julio Beobide eskultorearentzako paratzen.*

Bere gaztaroan harreman handia izan zuen herriko batzokiarekin, eta bertan antzerti-lanetan aritu zen. 1936ko gerra zibila hasi zenean Bizkaira ihes egin zuen eta Bilbon, bere lehen senarra ezagutu zuen, Juan Manuel Bilbao, Mundakako Eusko Alderdi Jeltzalearen batzordeburua. 1940an, tarte batean Iparraldean bizi izan ondoren, Venezuelara joan zen bizi izatera, eta bertan egon zen harik eta 1995ean Zumaiara, bere jaoiterrira, alegia, itzuli zen arte. Amerikako herrialde hartan ostalaritzan jardun zuen. 50. hamarkadaren amaieran senarrarengandik bereizi eta bera bezala 1936-1939ko gerratik ihesi joandako donostiar Rafael Calvorekin ezkondu zen.

Venezuelako erbesteratuen Eusko Alderdi Jeltzaleari lotutako hainbat aldizkaritan, esate baterako "Euzkadi", "Euzko Gaztedi", "Sabindarra" edo "Irrintzi", olerki asko eta asko argitaratu zituen. Venezuelako Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan ekintzaile garrantzitsua izan zen.

Poeta y escritora, hija de un capitán de la marina mercante de ideología peneuvista, con catorce años comenzó a posar para el escultor Julio Beobide, que vivía en esa localidad.

Su juventud la pasó muy en contacto con el batzoki del pueblo, donde se dedicó al teatro. Cuando comenzó la guerra civil de 1936 huyó a Bizkaia, y en Bilbao conoció a su primer marido, Juan Manuel Bilbao, presidente de la junta del Partido Nacionalista Vasco de Mundaka. En 1940, tras una breve estancia en el País Vasco-francés, se fue a vivir a Venezuela, donde residió hasta que en 1995 regresó a su Zumaia natal. En aquel país americano se dedicó al negocio de la hostelería. A finales de los años 50 se separó de su marido y se casó con Rafael Calvo, un donostiarra que también había escapado de la guerra de 1936-1939.

Publicó muchos poemas en las revistas vinculadas al Partido Nacionalista Vasco del exilio venezolano, como "Euzkadi", "Euzko Gaztedi", "Sabindarra" e "Irrintzi". Fue una destacada activista del Partido Nacionalista Vasco en Venezuela.

CARMEN BAROJA NESSI (Pamplona 1883-1950)

Hermana de Pío y Ricardo Baroja, y madre de Pío y Julio Caro Baroja. Utilizó en ocasiones el seudónimo de "Vera de Alzate". Fundadora, con María de Maeztu, Zenobia Camprubí, Victoria Kent y Elena Fortún, del "Lyceum Club Femenino".

Algunos de sus versos fueron publicados en el libro Tres Barojas (1995). Fue autora también cuentos infantiles como el titulado Martinito el de la casa grande (1942) y de investigaciones etnográficas como El encaje en España (1933) y Joyas populares y amuletos mágicos (1949).

La editorial Tusquets publicó en 1998 su autobiografía con el título "Carmen Baroja y Nessi. Recuerdo de una mujer de la generación del 98", en edición de Amparo Hurtado, obra en la que la autora se revela como una mujer de ideas avanzadas, miembro del grupo de mujeres del 98 que luchó por la emancipación femenina.

Pio eta Ricardo Barojaren arreba, eta Pio eta Julio Caro Barojaren ama. Zenbaitetan, "Vera de Alzate" goitizena erabili zuen. "Lyceum Club Femenino"ren sortzailea, María de Maeztu, Zenobia Camprubí, Victoria Kent eta Elena Fortúnekin batera.

Bere bertsoetako batzuk "Tres Barojas. Poemas 1995" liburuan argitaratu zituzten. Haur-ipuinak ere egin zituen, hala nola, Martinito el de la casa grande (1942), eta etnografiako ikerketak ere bai, hala nola, El encaje en España (1933) eta Joyas populares y amuletos mágicos (1949).

Tusquets argitaletxeak bere autobiografia argitaratu zuen 1998an, Carmen Baroja y Nessi. Recuerdo de una mujer de la generación del 98 izenburuarekin. Amparo Hurtadoren edizioan. Obra horretan, egileak azaltzen du nola 98ko emakume-taldeko kidea zen ideia aurreratuko emakume batek borroka egin zuen emakumezkoaren emantzipazioaren alde.

CARMEN CONDE (Cartagena 1907-1996)

Aunque en un principio trabajó como auxiliar calquista en la Oficina de Delineación de la Constructora Naval de Cartagena, estudió bachillerato, comercio y magisterio.

Durante la República, impulsó junto a su marido la Universidad popular de Cartagena, colaborando con las Misiones Pedagógicas.

Escritora perteneciente a la llamada Generación del 36, destacó sobre todo como poeta, escribió novelas ensayos y biografías. Fue la primera mujer miembro de la Real Academia de la Lengua Española.

Hasiera batean, kalkatzaile laguntzaile lana egin zuen Cartagenako Untziolako Delineazio Bulegoan; hala ere batxilergoa, merkataritza eta irakasle-ikasketak egin zituen.

Errepublikaren garaian, bere senarrarekin batera, Cartagenako Unibertsitate popularra bultzatu eta Misio Pedagogikoetan parte hartu zuen.

Idazle hau 36ko Belaunaldikoa izanik, olerkari nabarmendu zen; dena den, eleberriak, saiakerak eta biografiak ere idatzi zituen. Real Academia de la Lengua Españolako lehen emakumezko kidea izan zen.

CECILIA GARCÍA DE GUILARTE (Tolosa 1915 - 1989)

Ya al inicio de sus estudios demostró su gran interés por la escritura. A los once años a través de una revista catalana publicó su primer artículo y siendo ya adolescente colaboró como corresponsal en un periódico de la CNT madrileña.

Poco antes de la guerra civil su nombre ya había adquirido gran prestigio y sus artículos eran publicados por diferentes periódicos y publicaciones. Apenas cumplidos los veinte años consiguió ver publicados sus primeros escritos estrictamente literarios: *Locos y vencidos* y *Mujeres* (1935); *Rosa del rosal cortada* y *Los claros ojos de Ignacio* (1936).

Es un referente de las letras vascas y la primera mujer corresponsal de guerra, ya no sólo del periodismo vasco, sino de toda la cornisa Cantábrica. Una pionera injustamente tratada por la historia, que abrazó el anarquismo de un modo casi confesional y que cubrió para su periódico los frentes de Gipuzkoa, Bizkaia, Santander y Asturias entre 1936 y 1937.

Siguiendo los avatares de la guerra pasó a Francia, aunque pronto retornó por Cataluña. En 1939 se exilió definitivamente al país vecino donde colaboró en el periódico *Le Soud-Ouest*. En 1940 embarcó rumbo a Mexico de donde no volvería hasta 1963 dejando en el pais azteca a su marido, que no quiso volver a España mientras viviera Franco, a su hija y así como una extensa obra literaria.

Fue miembro del jurado de los Premios Literarios Ciudad de Irun.

Bere ikasketak hasi orduko idazketarekiko berebiziko interesa erakutsi zuen gipuzkoar idazle eta kazetari honen bokaziorako. Hamaika urte zituela argitaratu zuen bere lehen artikulua Kataluniako aldizkari batean eta nerabe zelarik Madrilgo CNTren egunkari batean korrespontsal gisa laguntzen aritu zen.

Gerra zibila baino zerbait lehenago bere izena sona handia hartua zen dagoeneko eta bere artikuluak egunkari eta argitalpenetan argitaratzen ziren. Hogei urte bete berria zela lortu zuen argitaratuta ikustea propio literarioak ziren bere lehenengo idatziak. Locos y vencidos y Mujeres (1935); Rosa del rosal cortada eta Los claros ojos de Ignacio (1936).

Euskal letren erreferente da eta gerra korrespontsal izandako lehen emakumea, euskal kazetaritzan ez ezik baita Kantauri kostalde osoan ere. Historiak bidegabe tratatutako aintzindaria, anarkismoari ia konfesionalki atxiki zitzaiona eta Gipuzkoa, Bizkaia, Santander eta Asturiaseko haren frenteetako berri bere egunkariarentzako eman zuena 1936 eta 1937 artean.

Gerra gorabeherei loturik Frantzira pasa zen, baina laster itzuli zen Kataluniatik. 1939an betiko exiliatu zen Frantzian eta bertan aritu zen Le Soud-Ouest egunkariarekin lankidetzan. 1940an ontziratu eta Mexikora joan zen eta ez zen handik itzuliko 1963 arte; han utzi zituen bere senarra, ez baitzuen Espainiara bueltatzerik nahi izan Franco bizi zen bitartean, alaba, eta literatur obra zabala.

Irun Hiria Literatur Sarietako epaimahaikide izan zen.

CLARA CAMPOAMOR RODRIGUEZ (Madrid 1888 - Lausana 1972)

Hija de un modesto empleado y de una modista. A los 21 años ingresó en el Cuerpo en el Cuerpo de Correos y Telégrafos. En 1924 obtiene el titulo de licenciada en derecho por la Universidad de Madrid, tenían entonces 36 años y apenas había mujeres que ejercieran la profesión de abogado.

Elegida diputada en 1931 como miembro del Partido Radical, formó parte de la comisión encargada de redactar el proyecto de Constitución de la Segunda República. Destacó su intervención en el artículo 36, en el que defendió la concesión del sufragio femenino sin ningún tipo de limitaciones, pese al riesgo que suponía que el voto se inclinase a favor de la derecha. Contraria a esta posición se muestra Victoria Kent, partidaria de reconocer a las mujeres el derecho al voto pero con ciertas limitaciones.

En octubre de 1931 fundó la Unión Republicana Feminista. En 1935 se separó del Partido Radical, debido a la "pérdida de confianza y la fe en el Partido" por llevar a cabo una política de derechas.

En 1936 escribió su obra más conocida "El voto femenino y yo", en la que argumentaba su defensa de la concesión del voto a las mujeres.

Con el estallido de la guerra civil se exilió a Francia, para pasar posteriormente a Argentina y Suiza donde murió. Sus restos reposan en el cementerio donostiarra de Polloe.

Langile apal baten eta jostun baten alaba. 21 urte zituela, Posta eta Telegrafoen Zerbitzuan sartu zen. 1024an, zuzenbideko lizentziatu-titulua lortu zuen Madrileko Unibertsitatean. Orduan 36 urte bakarrik zituen, eta oso emakume gutxik lan egiten zuten abokatutzan.

Diputatu hautatu zuten 1931n, Partido Radicalaren aldetik, eta Bigarren Errepublikako Konstituzioaren proiektua erredaktatzeko batzorde arduraduneko kide izan zen. 36. artikuluan nabarmendu zen haren esku-hartzea; izan ere, emakumeentzako mugarik gabeko sufragio-eskubidea defendatu zuen, nahiz eta botoa eskuinaren aldekoa izateko arriskua egon. Jarrera horren aurka agertu zen Vicotira Kent; hau emakumeei boto-eskubidea aitortzearen aldekoa zen, baina muga batzuk jarrita.

1931ko urrian, Batasun Errepublikar Feminista sortu zuen. 1935ean, Partido Radicaletik banandu zen, "Partidoarekiko konfiantza eta fedea" galduta, politika eskuindarra egiten zuelako.

1936an, bere lanik ezagunena idatzi zuen: "El voto femenino y yo"; han, emakumeei boto-eskubidea emateko defentsa argudiatzen zuen.

Gerra zibila piztu zenean, Frantziara atzerriratu zen, eta, gero, Argentinara eta Suitzara, eta han hil zen.

DOLORES IBARRURI GOMEZ (Gallarta 1895 - Madrid 1989)

Buruzagi komunista espainiarra, "La Pasionaria" izenez ezagunagoa. Meatzari familia batean jaio zen. Antonio Ibarruriren eta Juliana Gómezen alaba. Bere bizitza osoan eutsi zion bere aiurriari; bultzada, adorea eta kemena ematen zuen aiurri horrek, hain zuzen. Julian Ruizekin ezkondu zen; hura ere meatzaria eta aktibista. Sei seme-alaba eduki zituzten, baina batek bakarrik iraun zen bizirik, Amaiak.

1917an, greban parte hartu zuen, eta Somorrostroko sozialisten taldean sartu zen; 1920ko apirilaren ondoren bihurtu zen komunista. Espainiako Alderdi Komunistako (PCE) Kongresuan izan zen 1923an, eta 1930ean, batzorde zentralean sartu zen. 1931n, Madrilera joan zen, eta han, Mundo Obrero egunkari komunistaren erredakzioan hasi zen lanean. 1931n eta 1932an kartzelaratu egin zuten. Hirugarren Internazionalaren zazpigarren kongresuan parte hartu zuen; hartan erabaki zen klaseko fronte bakarreko politika.

Gerra zibilean, fronte errepublikarrean ibili zen, "no pasarán" eta "antes morir de pie que vivir de rodillas" kontsignak zabalduz. 1939tik, azterriratuta bizi izan zen Moskun. PCEko idazkari nagusia izan zen (1942-1960), eta presidente ere bai (1960-1989). Espainiara itzuli zen 1977an, eta Kongresurako diputatu hautatu zuten Oviedotik. "El único camino" izenburua du bere autobiografiak.

Dirigente comunista española, más conocida como "La Pasionaria". Nació en el seno de una familia de mineros. Hija de Antonio Ibarruri y Juliana Gómez. Mantuvo durante toda su vida un temperamento que facilitaba reacciones de empuje, arrojo y energía. Contrajo matrimonio con el también minero y activista Julián Ruiz. Tuvieron seis hijos, pero tan sólo uno sobrevivió, Amaya.

En el año 1917 tomó parte en la huelga e ingresó en la agrupación socialista de Somorrostro que se convirtió en comunista después de abril de 1920. Asistió al I Congreso del Partido Comunista de España (PCE) en 1923 y se integró en el comité central en 1930. En 1931 se trasladó a Madrid, donde comenzó a trabajar en la redacción del periódico comunista Mundo Obrero. Fue encarcelada en 1931 y 1932. Participó en el séptimo congreso de la Tercera Internacional, donde se decidió la política del frente único de clase.

Durante la guerra civil recorrió el frente republicano con las consignas "no pasarán" y "antes morir de pie que vivir de rodillas". Desde 1939 vivió exiliada en Moscú. Fue secretaria general del PCE (1942-1960) y presidenta del mismo (1960-1989). Regresó a España en 1977 y fue elegida diputada al Congreso por Oviedo. Su autobiografía se titula "El único camino".

DOLORES SALIS (Irun 1899-1999)

Luís Rodriguez Gal "Luís de Uranzu"rekin ezkondua eta Luís Salís Irungo azken alkate errepublikarraren arreba, hiru hilabete eskasengatik hiru mende ezagutu ez zituen emakume irundar hau hiru gerraren lekuko izan zen. Horietako batek, Espainiako gerra zibilak, erdiz erdi ikutu zuen bere bizitza.

Bost sem-alaba eta senar errepublikarra zituen emakume honek Bidasoaren beste aldera ihes egin behar izan zuen, beste irundar askok bezalaxe.

Langile porrokatua. Lana bere baldintza fisikoen pean egon zen. Autodidakta beti, hasiera batean eskulturan jardun zuen, harri gogorreko blokeak zuzenean zintzelez eta mazoz landuz. Eta ahalmena galtzen hasi zenean, esmaltearekin hasi zen. Berandu arte jardun zuen eta obra garrantzitsua egin eta arrakastaz erakutsi zuen hainbat hiritan.

Gaur egun Santa Elena ermitan dagoen Gurutze Bidea Doloresek egin eta Irun hiriari oparitua da.

Laurogei urte inguru zituela ikusmena huts egiten hasi zitzaion. Kataratetatik operatu zuten eta ondoren hain zehaztasun handiko esmalte-lana utzi egin behar izan zuen. Letra handiko "Olivetti" batekin ekin zion bere arte-abentura berriari. Ia bere heriotza bitarte jardun zuen idazten.

Esta irunesa, casada con Luís Rodriguez Gal "Luís de Uranzu" y hermana de Luís Salís, último alcalde republicano de Irun a la que faltaron tres meses para haber tocado tres siglos, fue testigo de tres guerras. Una de ellas la civil española, alcanzó de lleno el centro de su existencia.

Madre de cinco hijos y con un marido republicano tuvo que cruzar junto con otros muchísimos iruneses a la otra orilla del Bidasoa.

Gran trabajadora. Su actividad estuvo supeditada a sus condiciones físicas. Siempre autodidacta, en un principio hacía escultura, trabajando directamente los bloques de dura piedra con cincel y mazo. Y cuando empezó a perder facultades, se dedicó al esmalte. Hasta muy entrada en años realizo una obra importante y expuso con éxito en diversas ciudades.

El Vía Crucis que actualmente se halla en al ermita de Santa Elena es obra realizada y donada por Dolores a la ciudad de Irun.

Ya cerca de sus ochenta años empezó a fallarle la vista. Tras una operación de cataratas, se vio obligada a abandonar el minucioso trabajo del esmalte. Con una "Olivetti" de teclado de letras grandes inició su nueva aventura artística. Escribió casi hasta su muerte.

DOROTEA BARNES GONZALEZ (Pamplona 1904)

Hija del que sería ministro de Educación republicano, Francisco Barnés, estudió en el Instituto Escuela de Madrid y se doctoró en Química en 1931.

Fue becada en 1929 para estudiar Química en el Smith Collage de Northamton (Massachussets) y en 1930 en Yale, EEUU. Investigadora del Instituto Nacional de Física y Química, fue responsable de la introducción de la espectroscopia en España, que permitió continuar investigando en la estructura del átomo. Catedrática del Instituto Lope de Vega de Madrid, su carrera científica, una de las más brillantes de una mujer en la primera parte del siglo XX, quedó truncada por la guerra civil que la llevó al exilio.

Errepublikako Hezkuntza ministro Francisco Barnésen alaba. Madrileko Eskola Institutuan ikasi zuen, eta Kimikan doktoratu zen 1931n.

1929an, beka jaso zuen, Kimika ikasteko Northamton-eko Smith Collage-n (Massachussets), eta 1930ean, Yalen ikasteko (AEB). Fisika eta Kimikako Institutu Nazionaleko ikertzailea izan zen, eta berak sartu zuen espectroscopia Espainian. Horrek aukera eman zuen atomoaren egituran ikertzen jarraitzeko. Madrileko Lope de Vega Insitutuko katedraduna izan zen, eta bere karrera zientifikoa, XX. mendearen lehen zatian emakume batek izan zuen distiratsuenetakoa, zapuztu egin zen gerra zibilarekin, eta atzerrira joan behar izan zuen.

ERNESTINA DE CHAMPOURCIN (Gasteiz 1905 – Madril 1999)

Madrilen igaro zuen haurtzaroa; han ikasi zuen, eta han ekin zion poesiari. Unibertsitatera joan nahi izan zuen, baina ezin izan zuen, aitak ez zuelako nahi eta amak klaseetara lagundu nahi zuelako. Juan José Domenchinarekin ezkondu zen; hura ere poeta eta Manuel Azaña presidentearen idazkaria gerra garaian. Juan Ramón Jiménezen diszipulua izan zen, eta 27ko belaunaldiko poetekin bat eginik ibili zen, estiloan eta adiskidetasunean.

Bere obra osatzen dutenetako batzuk: En silencio, 1926; Ahora, 1928; La voz en el tiempo, 1931; Cántico inútil, 1936; Poemas del ser y del estar, 1972; Huyeron todas las islas, 1988; eta antologia batzuen ondoren, azken liburu bat 90 urte betetzear zela: Del vacío y de sus dones, 1993.

Gerra zibilean, Juan Ramón Jiménezek eta Zenobia Camprubik, umezurtz eta abandonatuekin kezkatuta, "Protección de Menores" izeneko batzorde antzeko bat sortu zuten. Ernestinak ere lan horri ekin zion, erizain gisa, eta gerora, Lola Azaña arduradun zeneko ospitalean hasi zen lanean erizaintzako laguntzaile.

Lan horretan izan zituen bizipenetatik abiatuta, nobela bat idazten hasi zen, Mientras allí se muere, baina ez zuen bukatu.

Atzerrira joan zen bere senarrarekin, Toulousera, Parisera eta Mexikora. Han, senarraren ondoan lan eginez bizi izan zen, Ekonomi Kulturaren Fondoko itzultzaile gisa.

Madrilen hil zen, erretiratua eta ahaztua.

Su infancia transcurrió en Madrid donde además de cursar sus estudios se inició en la poesía. Quiso ir a la universidad y no pudo por la oposición de su padre y el interés de su madre en acompañarle a las clases. Contrajo matrimonio con Juan José Domenchina, poeta también y secretario del presidente Manuel Azaña durante la guerra. Fue discípula de Juan Ramón Jiménez y estuvo unida por estilo y amistad a los poetas de la Generación del 27.

Componen parte de su obra: *En silencio* 1926, *Ahora* 1928, *La voz en el tiempo* 1931 y *Cántico inútil* 1936, *Poemas del ser y del estar* 1972, *Huyeron todas las islas* 1988, y tras algunas antologías, un último libro al filo de sus 90 años, *Del vacío y de sus dones* en 1993.

Durante la Guerra Civil, Juan Ramón Jiménez y Zenobia Camprubi preocupados por los niños huérfanos o abandonados, fundan una especie de comité denominado "Protección de Menores". Ernestina se suma a este trabajo en calidad de enfermera y posteriormente entra a trabajar como auxiliar de enfermería en el hospital regentado por Lola Azaña.

A partir de las vivencias que tiene en este trabajo inicia la redacción de una novela, *Mientras allí se muere*, inconclusa.

Marchó con su marido al exilio en Toulouse, París y México, donde sobrevivió trabajando junto a él como traductores del Fondo de Cultura Económica.

Murió en Madrid retirada y olvidada por todos.

FEDERICA MONTSENY MAÑÉ (Barcelona 1905 - Toulouse 1994)

Dirigente anarquista española. Hija de Juan Montseny (Federico Urales) y de Teresa Mañé (Soledad Gustavo), empezó de muy joven su colaboración en La Revista Blanca, que dirigían sus padres, y escribió varias novelas.

En 1933, su integración en la FAI (Federación Anarquista Ibérica) marcaría con su apoliticismo y su purismo libertario lo que habrían de ser las constantes suyas dentro de esa organización. Pasó a formar parte del comité peninsular de la FAI en 1936, y ese mismo año, luego de producirse el alzamiento franquista, aceptó formar parte del gobierno de Largo Caballero como ministra de Sanidad (noviembre 1936-mayo 1937).

En el exilio francés al término de la Guerra Civil (1939) siguió manteniendo el apoliticismo de la CNT (el sindicato anarquista), y en el congreso de Limoges de esta organización (1960) apoyó el pacto de acción conjunta con la UGT (el sindicato socialista). Regresó a España en 1977, pero más tarde volvió a residir en Francia.

Buruzagi anarkista espainiarra. Juan Montsenyren (Federico Urales) eta Teresa Mañeren (Soledad Gustavo) alaba. Oso gazte hasi zen bere gurasoek zuzentzen zuten La Revista Blanca aldizkarian laguntzen, eta zenbait nobela idatzi zituen.

1993an, FAIn sartu zen (Federazio Anarkista Iberiarra), eta apolitikotasuna eta garbizaletasun libertarioa izan ziren bere ideiak markatuko zituena erakunde horretan. 1936an, FAIren penintsulako batzordeko kide bihurtu zen, eta urte horretan bertan, altxamendu frankistaren ondoren, Largo Caballeroren gobernuko kide izatea onartu zuen, Osasun ministro gisa (1936ko azaroa-1937ko maiatza).

Gerra zibila amaitzean Frantzian atzerriratuta (1939), CNT sindikatu anarkistaren apolitikotasunari eutsi zion, eta erakunde horrek Limoges-en egin zuen kongresuan (1960), UGT sindikatu sozialistarekin elkar-ekintzarako ituna egitea babestu zuen. 1977an itzuli zen espainiara, baina, geroago, berriz Frantziara joan zen, bizitzera.

GERDA TARO (Stuttgart 1910 - Madrid 1937)

Gerda Taro o Gerta Pohorylle hija de judíos polacos. Desde muy joven entró a formar parte de movimientos socialistas y obreros. Por eso con la llegada de los nazis al poder, y tras haber sufrido una detención, decidió huir con una amiga a París donde conoció por casualidad a Andre Friedman, un judío húngaro que intentaba ganarse la vida como fotógrafo. Gerda y Andre se hicieron novios, y Andre le enseñó a Gerda sus conocimientos de fotografía.

Como no les iban bien las cosas, y no recibían trabajo, se les ocurrió una curiosa idea. Inventarían un personaje llamado Robert Capa, que supuestamente era un reputado fotógrafo llegado de Estados Unidos para trabajar en Europa. Como es tan famoso, vende sus fotos a través de sus representantes: Friedman y Pohorylle, al triple del precio que un fotógrafo francés. Este truco funciona perfectamente y al poco tiempo reciben montones de encargos y por fin ganan dinero.

En 1936 da comienzo la Guerra Civil Española, que marcaría decisivamente a ambos. Se trasladan a España para cubrir el conflicto. Fueron testigos de diferentes episodios de la guerra, y realizaban reportajes que luego eran publicados en revistas como "Regards" o "Vu".

Al principio la marca "Capa" era utilizada indistintamente por ambos. Luego se produjo cierto distanciamiento entre ellos y Andre Friedman se quedó con el nombre de "Robert Capa".

Del trabajo de Gerda en solitario su reportaje más importante fue el de la primera fase de la batalla de Brunete. Gerda fue testigo del triunfo republicano en esta primera fase de la batalla. Este reportaje fue publicado en "Regards" el 22 de julio de 1937 y dio a Gerda un gran prestigio.

Sin embargo poco después las tropas franquistas iniciarían un feroz contraataque, y Gerda decidió volver al frente de batalla en Brunete. Allí Gerda fue testigo de los salvajes bombardeos de la aviación del bando nacional, y realizó muchas fotografías, poniendo en riesgo su vida. En aquel infierno murieron miles de republicanos y finalizó en derrota.

GERDA TARO (Stuttgart 1910 - Madrid 1937)

Gerda Taro edo Gerta Pohorylle, poloniar juduen alaba. Oso gaztetatik bihurtu zen langile-mugimendu sozialistetako kide. Horregatik, naziak boterera iritsi zirenean, eta atxiloketa bat izan ondoren, lagun batekin Parisera alde egitea erabaki zuen. Han, Andre Friedman ezagutu zuen kasualitatez. Hura hungariar judua zen, argazkilari gisa bizimodua ateratzen saiatzen zena. Gerda eta Andre ezkongai egin ziren, eta Andrek argazkigintzan zeuzkan ezaguerak irakatsi zizkion Gerdari.

Gauzak ondo ez zihoazkienez gero, eta lan-eskaintzarik ez zutenez gero, ideia bitxi bat bururatu zitzaien. Robert Capa izeneko pertsonaia bat asmatuko zuten, Estatu Batuetatik Europara lan egitera etorritako argazkilari ospetsu bat bide zena. Hain ospetsua izanik, ordezkarien bidez saltzen ditu bere argazkiak: Friedman eta Pohorylle-ren bidez alegia, argazkilari frantziar baten prezio hirukoiztuan. Trikimailuak oso ondo funtzionatzen du, eta handik gutxira, izugarri enkargu pila jasotzen dute, eta azkenean, dirua irabazi.

1936an, Espainiako Gerra Zibila hasi zen, eta horrek zeharo eragin zituen biak ala biak. Espainiara joan ziren, gatazkaz jardutera. Gerrako hainbat pasadizoren lekuko izan ziren, eta erreportajeak egiten zituzten, gero "Regards" edo "Vu" bezalako aldizkarietan argitaratzeko.

Hasieran, biek erabiltzen zuten berdin-berdin “Capa” marka. Gero, aldendu egin ziren elkarrengandik, eta Andre Friedman geratu zen "Robert Capa" izenarekin.

Gerdak bere aldetik egin zituen lanetatik, Bruneteko borrokaldiaren lehen fasekoa izan zen erreportaje garrantzitsuena. Borrokaldi horren lehen faseko garaipen errepublikarraren lekuko izan zen Gerda. Erreportaje hori “Regards”en argitaratu zuten 1937ko uztailaren 22an, eta Gerdari ospe handia eman zion.

Handik gutxira, ordea, tropa frankistak kontraeraso indartsua hasi zuten, eta Bruneteko borrokaldiko frontera itzultzea erabaki zuen Gerdak. Han, nazionalen aldekoek egindako bonbardaketa basatien lekuko izan zen Gerda, eta argazki asko egin zituen, bere bizitza arriskuan jarrita. Infernu hartan, milaka errepublikar hil ziren, eta haiek porrot eginda amaitu zen.

GLORIA FUERTES (Madrid 1918-1998)

Poco se sabe de su vida familiar, ya que la escritora siempre guardó celosamente su intimidad y se ha especulado sobre su homosexualidad, que aparece sutilmente declarada en alguno de sus poemas.

Su interés por las letras comenzó a la temprana edad de cinco años, cuando ya escribía y dibujaba sus propios cuentos. Empezó a escribir versos a los catorce años, a los quince los leía en Radio España de Madrid y a los diecisiete dio forma a su primer libro de poemas, *Isla ignorada*, que sería publicado en 1950.

La Guerra Civil dejó una profunda huella en ella. El antibelicismo y la protesta contra lo absurdo de la civilización están presentes en su poesía de forma categórica.

Como secuela de su experiencia bélica, la obra de Gloria Fuertes se caracteriza por la ironía con la que trata cuestiones tan universales como el amor, el dolor, la muerte o la soledad. Todo ello aderezado con curiosas metáforas y juegos lingüísticos llenos de encanto, frescura y sencillez, que dotan a sus poemas de una gran musicalidad y cadencia cercana al lenguaje oral.

Gloria Fuertes fue aquella chica que paseaba en bicicleta por las calles de Madrid con falda-pantalón y corbata; una de las primeras voces de la poesía femenina de la posguerra; la mujer de las dos caras que armonizaba su amor por los niños - enredándoles con sus rimas, adivinanzas y juegos de palabras disparatados - con su amor por la vida y la paz, - denunciando la injusticia social, el desamor, el dolor y la opresión pero, todo ello, con su humor peculiar.

Ez dakigu gauza handirik bere familia bizimoduaz, izan ere idazleak kontu handiz gorde zuen bere intimitatea; asko hitz egin da haren homosexualitateari buruz, bere olerkiren batean, oso modu leunean adierazita bada ere, agertzen baita.

Letretarako oso goiz erakutsi zuen zaletasuna, bost urte zituela edo, ordurako bere ipuinak idazten eta margotzen baizituen. Hamalau urterekin hasi zen olerkiak idazten; hamabostekin irakurri egiten zituen Madrilgo Radio Españan; eta hamazazpirekin forma eman zion 1950ean argitaratu zuten Isla ignorada, bere lehen olerki-liburuari.
Gerra Zibilak sekulako arrastoa utzi zion. Bere poesian agertzen dira, zalantzarako inolako lekurik gabe, gerraren kontrako jarrera eta zibilizazioaren absurdoaren kontrako protesta.

Bere gerra-esperientziaren ondorioz, Gloria Fuertesen obrak ironia du ezaugarri; ironiaz tratatzen ditu esate baterako maitasuna, samina, heriotza edota bakardadea bezalako gai unibertsalak. Eta guztia metafora bitxiz eta xarmaz, freskotasunez eta xumetasunez beteriko hizkuntza-jokoz apaindua; horiek guztiek sekulako musikaltasuna eta aho-mintzairatik hurbil dagoen kadentzia ematen diote bere olerkiei.

Gloria Fuertes Madrilgo kaleetan barrena bizikletan gona-galtzetan eta gorbata jantzita ibiltzen zen neska hura zen; gerra osteko emakumeen olerkiaren lehen ahotsetako bat; bi aurpegiko emakumea, bi maitasun uztartu zituena: haurrak maite zituena eta haiek bere errima, asmakizun eta zentzugabeko hitz-jokoen bidez nahaspilatzen zituena; eta bizitza eta bakea maite zituena, eta horregatik gizarte bidegabekeria, maitasunik eza, samina eta zapalkuntza salatzen zituena, betiere bere umore berezi harekin.

HILDEGARTH RODRIGUEZ CARBALLEIRA (Madrid 1914 – 1933)

Fue una niña prodigio, concebida por su madre como modelo de mujer del futuro. A los tres años ya escribía, y a los ocho hablaba seis idiomas. Terminó los estudios de Derecho a los 17 años y fue una miembro muy activa del PSOE y después del Partido Federal.

Hildegarth fue una de las personas más activas de su tiempo en el movimiento por la reforma sexual en España. Al fundarse la Liga Española por la Reforma Sexual presidida por el doctor Gregorio Marañón es escogida secretaria sin vacilaciones. Publicó múltiples textos, entre ellos la monografía *La Revolución Sexual* que vendió 8.000 ejemplares, sólo en Madrid, en la primera semana tras su publicación

La publicación en 1932 de una carta en al periódico *La Libertad*, en la que criticaba duramente una posible alianza del PSOE con un candidato reaccionario, provocó su expulsión. Tras esto se convirtió en miembro del Partido Federal y una ferviente crítica de los "socialenchufistas".

Cuando comenzaba a ser conocida internacionalmente y ante el intento de alejarse del proyecto vital que le tenía reservado, su madre, mientras dormía le pegó cuatro tiros y la mató.

Haur miraria, amak etorkizuneko emakumearen eredu gisa diseinatua. Hiru urte zituenean bazekien idazten, eta zortzirekin sei hizkuntzatan hitz egiten zuen. 17 urte zituela amaitu zituen Zuzenbideko ikasketak eta PSOEko lehenik eta ondoren Alderdi Federaleko oso kide aktiboa izan zen.

Hildegarth bere garaiko pertsonarik aktiboenetako bat izan zen Espainian erreforma sexualerako mugimenduaren barruan. Gregorio Marañón doktorea buru zuen Erreforma Sexualerako Espainiako Liga sortu zenean zalantzarik gabe hautatu zuten bertako idazkari. Testu ugari argitaratu zuen, horien artean La Revolución Sexual monografia, argitaratu eta lehen astean Madrilen soilik 8.000 ale saldu zituena.

1932an eskutitz bat argitaratu zuen La Libertad egunkarian, eta bertan oso zorrotz kritikatzen zuen ustez PSOE hautagai erreakzionario batekin elkartzeko zegoen posibilitatea, eta horregatik alderditik kanpora bota zuten Hildegarth. Horren ostean Alderdi Federaleko kide egin zen eta "sozialentxufisten" kritikari kupidagabea.

Nazioartean famatua izaten hasi zenean eta berarentzako pentsatua zuen bizitza proiektu hartatik aldentzen saiatzen ari zenez, amak lau tiro eman zizkion alabari lo zegoela, eta hil.

IRENE FALCON (Madrid 1907-1999)

Educada en el Instituto Alemán, trabajó desde los 15 años con Ramón y Cajal traduciendo artículos de revistas científicas internacionales. Su nombre de soltera era Irene Lewy Rodriguez, pero adoptó el apellido de su marido cuando el 1926 comenzó a publicar sus artículos en El Sol, La Voz y Mundo Obrero, donde conoció a Dolores Ibárruri, con la que colaboraría estrechamente hasta su muerte y de quien fue además compañera y amiga.

Fue activa instigadora de proyectos como la Asociación de Mujeres Antifascistas. Exiliada en Rusia y después en China, donde trabajó en la radio junto a su hermana Kety, tras su regreso a España con la amnistía de 1977 trabajó en la Fundación Dolores Ibárruri y en 1996 publicó sus memorias.

Institutu Alemanean hezi zuten, eta 15 urtetik, Ramón y Cajalen lan egin zuen, nazioarteko aldizkari zientifikoetako artikuluak itzultzen. Irene Lewy Rodriguez izena zuen ezkondu aurretik; baina bere senarraren abizena hartu zuen, 1926an El Sol, La Voz eta Mundo Obrero-n bere artikuluak argitaratzen hasi zenean. Han ezagutu zuen Dolores Ibarruri, eta harekin batera gogoz jardun zuen, hil zen arte; gainera, haren laguna eta adiskidea izan zen.

Eragile aktiboa izan zen Emakume Antifaxisten Elkartea bezalako proiektuetan. Errusian atzerriratu zen, eta gero, Txinan. Han, irratian lan egin zuen bere ahizpa Ketyrekin. 1977ko amnistiaren ondorioz Espainiara itzuli zenean, Dolores Ibarruri Fundazioan lan egin zuen, eta 1996an, haren oroitzapenak argitaratu zituen.

ISABEL OYARZABAL SMITH (Málaga 1878 - México 1974)

Fue periodista, dramaturga, etnóloga, actriz, diplomática.
En 1920 asistió al Congreso de la Alianza Internacional para el Sufragio de la Mujer en Ginebra, como delegada y secretaria del Consejo Supremo feminista de España.

Dictó un sinnúmero de conferencias en Montreal, Miami, Nueva York y San Francisco sobre folcklore y moda recogidas en un libro *El traje regional de España* (1926). Fue la única mujer que formó parte de la Comisión Permanente de la Esclavitud en las Naciones Unidas.

En 1930, consiguió entrar en la cárcel y fotografiar al Comité Revolucionario Republicano. Sus fotografías se publicaron en el Daily Herald de Londres. Su labor de apoyo a la causa de la República se intensifica desde 1936.

En abril de 1939 abandona la embajada y tras un tiempo en los campos de concentración franceses, parte exiliada hacia México donde continuó con su actividad creativa y su militancia activa feminista.

Murió en México en 1974, un año antes que el dictador. Nunca pudo volver a España.

Kazetari, dramagile, etnologo, aktore, diplomatiko izan zen.
1920an Genevan egin zen Emakumeek Boto Emateko Nazioarteko Aliantzaren Kongresuan izan zen Espainiako feministen Kontseilu Gorenaren ordezkari eta idazkari bezala.

Sekulako hitzaldi piloa eman zuen Montreal, Miami, New York eta San Frantziskon folkloreari eta modari buruz, El traje regional de España (1926) liburuan bildurik daudenak. Nazio Batuen Esklabotasunaren Batzorde Iraunkorrean egon zen emakume bakarra izan zen.

1930ean kartzelan sartzea lortu zuen eta bertan Komite Iraultzaile Errepublikarrari argazkia ateratzea. Bere argazkiak Londoneko Daily Herald-en argitaratu ziren. Errepublikaren aldeko bere lanak indar gehiago hartu zuen 1936tik aurrera.

1939ko apirilean enbaxada utzi eta frantziar kontzentrazio eremuetan denboraldi bat egin ondoren, Mexiko aldera exiliatu zen, eta han segitu zuen bere sortze lanarekin eta militantzia aktibo feministarekin.

Mexikon hil zen 1974an, diktadorea baino urtebete lehenago. Ez zuen inoiz Espainiara itzultzerik izan.

JUANA DOÑA JIMENEZ (Madrid 1918)

Con trece años inició su militancia en el PCE. Luchó contra la dictadura franquista desde todos los frentes y fue la última mujer condenada a muerte en España.

Juana Doña fue una luchadora infatigable, una mujer comprensiva, una persona de bien pero, sobre todo, cargada con un arma letal contra el fascismo: la palabra. Con sólo trece años, entró a militar en el Partido Comunista de España (PCE), con ella eran seis las mujeres que por aquel entonces estaban en el partido. La lucha contra la dictadura la llevó durante quince años a las cárceles franquistas por su militancia comunista y fue condenada a muerte y conmutada su pena, según cuentan, por la intervención de Eva Perón.

Juana fue miembro del Comité Central del PCE y su lucha durante la guerra y, de manera posterior, en la Guerrilla del Llano le llevó a la máxima condena que, tras la conmutación, se sustituyó por treinta años de cárcel (fue la última mujer condenada en España a la pena capital, en 1947). Fue militante de Comisiones Obreras (CC.OO.) y colaboradora de Mundo Obrero desde 1977. Pero, ante todo, Juana fue látigo contra la intolerancia, a través de sus palabras llenas de sentimiento y, a la vez, aceradas contra el fascismo. En libros como *Mujer* (1977), *Desde la noche y la niebla* (1978) o *Gente de abajo* (1992), destila lo que fue toda su vida: una lucha contra el dolor personal, la ejecución de su compañero Eugenio Mesón, también dirigente comunista, y una lucha innegociable a favor de la libertad y en contra del olvido.

Hamahairu urte zituela hasi zen PCEn militatzen. Francoren diktaduraren aurka frente guztietatik jardun zuen eta Espainian heriotz zigorra izan zuen azken emakumea izan zen.

Juana Doña borrokalari nekaezina izan zen, ulertzen zekien emakumea, on besterik egiten ez zuen pertsona, baina batez ere, faxismoaren aurka arma hilgarria erabiltzen zuena: hitza. Hamahiru urte besterik ez zuen Espainiako Alderdi Komunistan (PCE) sartu zenean; berarekin sei ziren garai hartan alderdian zeuden emakumeak. Diktaduraren kontrako borrokagatik eta bere militantzia komunistagatik hamabost urtez kartzela frankistetan egon behar izan zuen, eta heriotz zigorra eman zioten; gero, diotenez, Eva Perónek esku-hartu eta zigor hura kommutatu egin omen zioten.

Juana PCEren Komite Zentraleko kide izan zen, eta gerran eta, ondoren, El LLanoko Gerrillan egin zuen borrokagatik heriotz zigorra jarri zioten, kommutatu ondoren zigor horren ordez hamar urteko kartzela izan zuelarik (Espainian heriotz zigorra izan zuen azken emakumea izan zen, 1947n). Comisiones Obreraseko (CC.OO.) militante izan zen eta Mundo Obreroko laguntzaile 1977tik. Baina, batez ere, Juana tolerantziarik ezaren aurkako latigoa izan zen, sentimenduz beteriko eta aldi berean zorrotz baino zorrotzago ziren bere hitzen bidez. Hainbat liburutan, esate baterako Mujer (1977), Desde la noche y la niebla (1978) edo Gente de abajo (1992), bere bizitza osoa nolakoa izan zen erakusten da: Bere samin propioaren aurkako borroka, bere adiskide eta burukide komunista Eugenio Mesónen exekuzioa, eta askatasunaren aldeko eta ahanzturaren aurkako borroka tinkoa.

JUANITA CRUZ (Madril 1917-1981)

Toreroz jantzi eta toreatu zuen lehenengo emakumeetako bat da, nahiz eta kideek inoiz onartu ez zuten.

1936an, Las Ventasen egin zuen debuta, nobillero gisa. Bere arrakasten aurrean, toreatzaile-talde batek Gobernazio Miisterioak 1908ko agindu bat aplika zezan lortu zuen; haren bidez, emakumeek debekatuta zeukaten oinez toreatzea: "ikuskizun desegokia" eta sentimendu delikatu ororen aurkakoa".

Errepublikaren alde hainbat jaialdi onegintzakotan parte hartu ondoren, Amerikara joan zen, eta han, 700 jai baino gehiagotan toreatu zuen. Espainiara itzuli zenean, 1947an, legeak berriz debekatzen zien emakumeei oinez toreatzea, eta horrek galarazi egin zion bere lurrean arrakasta izatea.

Una de las primeras mujeres que se vistió de luces y toreó, aunque nunca fue aceptada por sus colegas.

En 1936 debutó en Las Ventas como novillera. Ante sus éxitos, un grupo de toreros logró del Ministerio de la Gobernación que aplicara una orden de 1908 que prohibía a las mujeres torear a pié, "espectáculo impropio" y "opuesto a todo sentimiento delicado."

Tras participar en varios festivales benéficos a favor de la Republica marchó a América, donde toreó en más de 700 festejos. Al regresar a España en 1947 la ley prohibía de nuevo el toreo a pié a las mujeres, lo que le impidió triunfar en su tierra.

JULIA YRURETAGOYENA DE MEABE (Irun – Mexiko DF)

Irungo alkatetzako presidentzia 20 urte eta gehiagoz izan zuen Irungo sona handiko errepublikar León Yruretagoyena jaunaren alaba, eta bizkaitar olerkari, idazle eta kazetari, eta Bilbon Gazteria Sozialisten sortzaile izan zen Tomás Meaberen emaztea.

Hiru urtez bere jardun intelektuala Frantzian eta Inglaterran garatu zuen, eta Madrilgo Lanaren Nazioarteko Bulegoko zuzendaritzaren barruan egon zen.

Victoria Kent-en lagun mina, haren laguntzailerik handienetakoa izan zen, eta haren proiektu askotan hartu zuen parte.

Bere ibilbide liberal errepublikarra zela eta, 1936an militarrak altxatu zirenean, bere etxea eta ondasunak utzi eta Frantziara alde egin zuen, eta handik bere guraso eta ahizparekin batera Mexikora, luze iraun zuen exiliora.

Hija del insigne republicano irunés D. León Yruretagoyena, quien ocupara la presidencia de la alcaldía de Irun durante más de 20 años y esposa del poeta, escritor y periodista vizcaíno Tomás Meabe, fundador en Bilbao de las Juventudes Socialistas.

Durante tres años desarrolló su trabajo intelectual en Francia e Inglaterra, pasando a formar parte de la dirección de la Oficina Internacional de Trabajo en Madrid.

Amiga íntima de Victoria Kent fue una de sus más valiosas colaboradoras y participó en muchos de sus proyectos.

Debido a su trayectoria liberal republicana. al estallar la sublevación militar de 1936 tuvo que abandonar su casa y pertenencias y marchar a Francia, para a continuación iniciar junto a sus padres y hermana su largo exilio en México.

JULIA ÁLVAREZ RESANO (Villafranca de Navarra 1903 - Mexico DF 1948)

Maestra y abogada. Diputada por Navarra (la primera mujer que lo fue) en las Cortes españolas de la Segunda República. Comenzó militando en el Partido Radical y posteriormente fue miembro del Partido Socialista Obrero Español.

En 1934 se traslada a Madrid como Directora del Grupo Escolar Rosario de Acuña, en Aluche. En 1936 es nombrada inspectora interina de primera enseñanza en la provincia de Madrid. Miembro (y durante parte del año 1936 presidenta) de la Federación de Trabajadores de la Enseñanza (del Sindicato UGT). En 1937 se convierte en la primera mujer que ocupó el Gobierno Civil de una provincia (Ciudad Real), permaneciendo en él ocho meses y catorce días.

Posteriormente, es juez interino de 1ª instancia e instrucción en Alberique (Valencia). Más adelante, magistrada interina del Tribunal Central de Espionaje y Alta Traición (3 de agosto de 1938 al 3 de septiembre de 1938). En septiembre de 1938 interrumpe estas funciones a causa de la grave enfermedad de su esposo, que fallece a principios de octubre y al cual sustituye en la Diputación permanente de las Cortes.

Derrotada la República española, en 1939 pasa al exilio, primero en Francia y posteriormente en México. En Francia participó en la Unión Nacional Española y se alinea con la fracción del PSOE liderada por Ramón Lamoneda. Dirige una versión de El Socialista desde Toulouse (octubre de 1944 a julio de 1945). Abandona la Unión Nacional Española en el verano de 1945. Posteriormente marcha a México, donde fallecería en 1948.

Maistra eta abokatua. Diputatua Nafarroatik (lehen emakume diputatua), Espainiako Bigarren Errrepublikako Gorteetan. Partido Radicaleko militante izanez hasi zen, eta gero, Partido Socialista Obrero Español alderdiko kide izan zen.

1934an, Madrilera joan zen, Alucheko Rosario de Acuña Eskola Taldeko zuzendari gisa. 1936an, lehen irakaskuntzako bitarteko ikuskatzaile izendatu zuten Madrileko probintzian. UGT sindikatuko Irakaskuntzako Langileen Federazioko kide izan zen, eta presidente ere bai 1936. urteko aldi batean. 1937an, lehen emakumea izan zen probintziako Gobernu Zibila hartu zuena (Ciudad Real); zortzi hilabete eta hamalau egun egon zen hala.

Gero, 1. auzialdiko eta instrukzioko bitarteko epaile izan zen Alberiquen (Valentzian). Geroago, Espioitzako eta Goi-mailako Traizioko Epaitegi Nagusiko bitarteko magistratua izan zen (1938ko abuztuaren 3tik irailaren 3ra). 1938ko irailean, eten egin zituen funtzio horiek, bere senarrak gaixotasun larria izan zuelako. Urriaren hasieran hil zitzaion, eta haren ordez jarri zen Gorteetako Diputazio iraunkorrean.

Espainiako Errepublika garaitu zutenean, 1939an, atzerrira joan zen; lehendabizi Frantziara eta gero Mexikora. Frantzian, Espainiako Batasun Nazionalean parte hartu zuen, eta PSOEko Ramón Lamoneda lider zen sailaren alde jarri zen. Toulousetik, El Socialista-ren bertsio bat zuzendu zuen (1944ko urritik 1945eko uztailera). 1945eko udan, Espainiako Batasun Nazionala utzi zuen. Gero, Mexikora joan zen, eta han hil zen 1948an.

LILÍ ÁLVAREZ (Roma 1905 – Madrid 1998)

Elia María González-Álvarez y López-Chicheri, polideportista , tenista internacional, escritora, y periodista española se crió en Suiza y desde temprana edad comenzó a competir en varias modalidades deportivas. A los 14 años ganó su primer torneo de tenis. Fue esquiadora alpina, equitadora y conductora de coches de carreras, llegando a ganar el Campeonato de Cataluña de Automovilismo a los 19 años.

Fue pionera en el tenis femenino español. Entre el 1926 y el 1928 consiguió 3 finales consecutivas en Wimbledon. En 1929 haciendo pareja con la holandesa Kornelia Bouman consiguió ganar el título ´´dobles femeninos´´ en el Open Francia. Al año siguiente, ganó el título individual en Roma. En 1927 escribió un libro en inglés publicado en Londres con el título ´´Modern lawn tennis´´. En 1931 conmocionó el mundo del tenis jugando el los campeonatos de Wimbledon con una falda de tenis dividida que fue la precursora de los pantalones cortos. Ese mismo año, comenzó a escribir artículos políticos de España para el periódico británico Daily Mail.

En 1934 se casó con el un aristócrata francés. En 1939, perdió a su único hijo y la pareja se separó. Volvió a España en 1941 donde continuó activa en los deportes y comenzó a escribir tópicos femeninos y religiosos, publicando su libro Plenitud en 1946.

Apoyó activamente el movimiento mundial femenino y a lo largo de los años, escribió varios libros más.

Suitzan hazitako Elia María González-Álvarez y López-Chicheri espainiarra, kirol askotan aritzen zen, nazioarteko tenis jokalaria zen, idazlea, eta kazetaria; txiki-txikitatik hasi zen hainbat kirol modalitatetan lehiatzen. 11 urte zituela irabazi zuen bere lehen txapelketa izotz gaineko patinajean eta gero Saint-Moritzeko izotz gaineko patinaje txapelketa.

14 urterekin irabazi zuen bere lehen tenis torneoa. Eskiatzaile alpinoa, zaldietan aditua, eta lasterketa-automobilen gidaria, 19 urte zituela Kataluniako Automibilismo Txapelketa irabazi zuen.

Aintzindaria izan zen Espainiako emakumezkoen tenisean. 1926 eta 1928 urteen artean 3 final irabazi zituen jarraian Wimbledonen. 1929an Kornelia Bouman holandarrarekin batera jokatuz Frantziako Openean "emakumezkoen binakakoa" titulua irabaztea lortu zuen. Hurrengo urtean, banakakoen titulua irabazi zuen Erroman. 1927an liburu bat idatzi zuen ingelesez, ´´Modern lawn tennis´´ izenekoa, Londonen argitaratua. 1931n teniseko munduan sekulako zalaparta sortu zuen Wimbledoneko txapelketan gero etorriko ziren galtza motzen aintzindari izan zen tenis-gona zatituaz jokatu zuelako. Urte hartan bertan Espainiako politika-artikuluak hasi zen idazten Daily Mail britaniar egunkariarentzako.

1934an frantziar aristokrata batekin ezkondu zen. 1939an bere seme bakarra hil eta bikotea banandu egin zen. 1941ean Espainiara itzuli zen, eta bertan segitu zuen kirola praktikatzen eta emakume eta erlijio topikoen gainean hasi zen idazten, 1946an Plenitud liburua argitara eman zuelarik.

Aktiboki babestu zuen mundu mailako emakumeen mugimendua eta urteetan zehar beste liburu batzuk ere idatzi zituen.

LUCÍA SANCHEZ SAORNIL (Madrid 1895 – Valencia 1970)

Después de la escuela pública tuvo que compaginar sus estudios de pintura en la Academia de Bellas Artes de San Fernando con su trabajo como telefonista.

Feminista y anarquista, no podía concebir la subordinación de la lucha de la mujer a la de clases. Creo "Mujeres libres", la rama feminista de la CNT. Organización que llegó a ostentar una afiliación de 20.000 mujeres al estallar la batalla nacional,

Como anarquista convencida, considera que la Republica es una farsa proveniente de la burguesía que una vez conseguida hay que derribar. Su plena dedicación durante los años de la II Republica, hacen que en el año 1933 sea nombrada secretaria de redacción de la CNT de Madrid.

Defiende abiertamente que la lucha de la mujer no debe estar supeditada a la lucha de clases e insta a los anarquistas para que empiecen a liberar a las mujeres de sus prejuicios en sus propias casas.

En mayo 1938 ocupa la secretaria del Consejo General de Solidaridad Internacional Antifascista. Y en 1939 se exilia a Francia donde pasará dos años. En 1941 vuelven a cruzar la frontera huyendo del nacionalsocialismo alemán y para evitar la deportación a los campos de concentración.

Eskola publikoaren ondoren, San Fernandoko Arte Ederren Akademiako pintura-ikasketak eta telefonista-lanak partekatu behar izan zituen.

Feminista eta anarkista izan zen, eta ezin zuen ulertu emakumearen borroka klase-borrokaren pean. "Mujeres libres" CNTko adar feminista sortu zuen. Erakunde horrek 20.000 emakume afiliatu izan zituen, borroka nazioanala piztu zenean.

Anarkista konbentzitua zen aldetik, Errepublika fartsa bat zela uste zuen, burgesiatik zetorrena, eta behin lortuta garaitu beharrekoa. II. Errepublikaren garaian buru-belarri jardun zuelarik, 1933an, erredakzioko idazkari izendatu zuten Madrileko CNTn.

Zabal-zabal defendatzen du emakumearen borrokak ez duela egon behar klase-borrokaren pean, eta anarkistei eskatu zien has zitezela emakumeak aske uzten beren aurreiritzietatik norberaren etxean hasita.

1938ko maiatzean, Nazioarteko Elkartasun Antifaxistako Kontseilu Nagusiko idazkari hasi zen. 1939an, Frantziara atzerriratu zen; bi urte igaro zituen han. 1941ean, berriz zeharkatu zuen muga, nazionalsozialismo alemaniarretik ihesi eta kontzentrazio-eremuetara eraman zezaten saihesteko.

MANOLITA DEL ARCO PALACIO (Bilbo 1920 – 2006)

Militante komunista 18 urte zituenetik eta errepublikazalea, 1939ko martxoaren 7an atxilotu egin zuten eta kartzelan egon zen 21 urtez. 1942an heriotz zigorra ezarri zioten juxtu Ángel Martínez, hiltzera zigortua hau ere, ezagutu zuen egunean. Biei kommutatu zizkieten zigorrak, eta hirurogeiko hamarkadan aske utzi zituztenean, ezkondu egin ziren.

1949an Segoviako kartzelan Pilar Claudin, Merche Gómez, María Blázquez, Nieves Torres eta Josefina María Villarekin batera han egin zen gose-grebaren protagonista izan zen.

Tomasa Cuevasekin eta emakume horiekin guztiekin klandestinitate urteetan askatasunaren alde jardun zuten, eta euren seme-alabekin joaten ziren Burgoseko presondegira beren senarrei eta preso politiko guztiei babesa ematera.

Protagonismotik urrun, bere lekukotasunaren bidez izandako errepresioaren berri eman zuen, gaitzondorik gabe, baina tinko adieraziz betiere bazela borrokatzea merezi zuen balioa: "Askatasuna".

Militante comunista desde los 18 años y republicana, fue detenida el 7 de marzo de 1939 y estuvo encarcelada durante 21 años. En 1942 fue condenada a muerte justo el día en que conoció a Ángel Martínez, también condenado a muerte, con quien al serles conmutadas las penas y puestos en libertad en los años sesenta, se casó.

Fue junto a Pilar Claudin, Merche Gómez, María Blázquez, Nieves Torres y Josefina María Villa protagonista de la huelga de hambre en la cárcel de Segovia en 1949.

Junto a Tomasa Cuevas y esas mismas mujeres, en los años de la clandestinidad, lucharon por la libertad acudiendo con sus hijos a las puertas del penal de Burgos en apoyo no solo de sus maridos sino de todos los presos políticos.

Huyó siempre de todo protagonismo, dejando con su testimonio lo que había sido la represión, sin resentimiento, pero con la firmeza de que había un valor por el que luchar siempre: "La Libertad".

MARGARITA NELKEN Y MAUSBERGER

(1898 Madrid – Mexico 1968)

Aunque nacida en Madrid, al ser hija de judíos alemanes emigrados a España, no obtuvo la nacionalidad hasta 1931.

Tras marchar muy joven a Paris y estudiar pintura, música y periodismo, muy pronto colaboró en periódicos y revistas especializadas de diversos países.

En 1931 obtuvo su acta de diputada por el Partido Socialista, aunque tuvo que esperar para tomar posesión hasta que le fue concedida la nacionalidad española. Sobre el voto femenino opinaba, como muchos otros diputados de su partido, que las mujeres españolas no estaban preparadas para ejercer libremente el voto.

Volvió a ser elegida diputada en 1933 y 1936. Al estallar la guerra colaboraba con el Partido Comunista y con sus organizaciones afines, formando parte del Comité de Auxilio Femenino y del Comité Nacional de Mujeres Antifascistas. Con la finalización de la guerra emigró a México. Entre sus principales obras destacan: La mujer en las Cortes Constituyentes (1931) y La condición social de la mujer en España.

Madrilen jaioa izanagatik, ez zuen nazionalitatea 1931 arte lortu, Espainiara etorritako alemaniar judutarren alaba zelako.

Oso gazterik Parisera joana, han pintura, musika eta kazetaritza ikasi zituen, eta berehalaxe hasi zen hainbat herrialdetako egunkari eta aldizkari espezializatuetarako lan egiten.

1931n lortu zuen Alderdi Sozialistaren diputatu-akta, baina kargua hartzeko espainiar nazionalitatea eman arte itxaron beharra izan zuen. Emakumeen botuari dagokionez, bere alderdiko beste diputatu askok bezalaxe, pentsatzen zuen Espainiako emakumeak ez zeudela botua askatasunez erabiltzeko prestaturik.

1933 eta 1936 urteetan berriro hautatu zuten diputatu. Gerra hasi zenean Alderdi Komunistarekin eta haren inguruko erakundeekin ari zen lanean, eta Emakumeen Laguntza Batzordean eta faxismoaren aurkako Emakumeen Batzorde Nazionalean zegoen. Gerra amaitu zenean Mexikora joan zen. Bere lanik garrantzitsuenen artean honakoak daude: Emakumea Gorte Eratzaileetan (1931) eta Emakumearen kondizio soziala Espainian.

MARGARITA XIRGU (Molins de Rei 1800 – Montevideo 1969)

Fue una de las figuras esenciales en la renovación del teatro español de la primera mitad del siglo XX. Su primera representación profesional será con la compañía del Teatro Romea.

Su ductilidad como actriz le permitía adaptarse a todos los géneros, desde el vodevil (*La Xocolatera*) a la tragedia (*La dama de las camelias*, 1848, de Dumas, *Maria Rosa*, 1894, de Àngel Guimerà o *Salomé* de Wilde). Se traslada a Madrid en 1914. El éxito en la escena castellana le llega de la mano de Pérez Galdós, del que estrenó *Marianela* (1878). Su época más brillante fueron los años en los que estuvo al frente de la compañía del Teatro Español donde representó a los más destacados dramaturgos españoles y extranjeros. Entre sus interpretaciones más memorables destacan *Divinas palabras* (1920) de Valle-Inclán, *La sirena varada* de Alejandro Casona, *Santa Juana* (1923) de Bernard Shaw, y *La hija de Jorio* (1904) de D'Annunzio. Sus montajes de los clásicos del siglo de oro modernizaron la escena española. Entre ellos, destaca García Lorca, del que puso en escena *Mariana Pineda* (1927), *Yerma* (1935) y *Doña Rosita la soltera* (1935). Ya muerto Lorca, Margarita Xirgu estrenará *La casa de Bernarda Alba* (1936) en Buenos Aires, en 1945. La guerra del 36 la sorprendió de gira por América. Exiliada voluntariamente, ya nunca regresaría a España.

Trabajó, sobre todo, en Argentina y Uruguay, donde se dedicó no sólo a la interpretación sino a la formación de nuevas generaciones de actores. Dirigió la Escuela Dramática Municipal de Montevideo.

Figurarik garrantzitsuenetakoa izan zen XX. mendearen lehen zatiko Espainiako antzertiaren berrikuntzan. Teatro Romea konpainiarekin egin zuen bere lehen antzezpen profesionala.

Aktore bezala oso malgua zen eta horri esker genero guztietara egokitzen zen: bodebiletik (La Xocolatera), tragediara (Dumas-en La dama de las camelias, 1848; Àngel Guimerà-ren Maria Rosa, 1894; edo Wilde-ren Salomé). 1914an Madrilera joan zen. Gaztelako esnezan arrakasta Pérez Galdósen eskutik etorri zitzaion, haren Marianela (1878) estreinatu zuenean. Bere garairik onena Teatro Españoleko konpainia zuzentzen egon zen urteetakoa izan zen; han antzeztu zituen Esapiniako eta atzerriko dramagile garrantzitsuenen lanak. Bere interpretazio gogoangarrienen artean honakoak daude: Divinas palabras (1920) Valle-Inclánena; La sirena varada, Alejandro Casonarena; Santa Juana (1923) Bernard Shaw-ena; eta La hija de Jorio (1904) D'Annunziorena. Urrezko mendeko klasikoekin egin zituen muntaiek espainiar eszena modernotu egin zuten. Muntaia horien artean García Lorca azpimarratu behar da; haren Mariana Pineda (1927), Yerma (1935) eta Doña Rosita la soltera (1935) eraman zituen eszenara. Lorca hil ondoren Margarita Xirguk La casa de Bernarda Alba (1936) estreinatu zuen Buenos Airesen, 1945ean. 36ko gerra etorri zenean, bera Amerikan barrena zebilen biran. Bere borontatez exiliatua, ez zen berriz Espainiara itzuliko.

Argentinan eta Uruguain lan egin zuen batez ere; leku horietan antzerti-lanetan ezezik aktore belaunaldi berriak prestatzen ere jardun zen. Montevideoko Udal Antzerti Eskola zuzendu zuen.

MARÍA DE LA O LEJÁRRAGA
(San Millán de la Cogolla 1874 – Buenos Aires 1974)

Más conocida como María Martínez Sierra pedagoga, literata, dramaturga, periodista, fue una de las innumerables voces de la España Republicana que la guerra arrojó al exilio.

Estudió magisterio. En Bélgica descubrió que los muchachos y muchachas de la clase media hacían causa común con los trabajadores y con ellos, entró por primera vez a una Casa del Pueblo. ".

En 1904, hace amistad con Juan Ramón Jiménez y con Manuel de Falla. En 1909 su novela *Tú eres la paz,* constituyó un best-seller.

El 21 de febrero de 1911 se estrenó en el teatro Lara, *Canción de cuna*. En el teatro Eslava se estrenaron o reestrenaron casi todos los títulos importantes de su producción.

Cabe destacar numerosos libretos que, en colaboración con los principales músicos y con los escenógrafos más audaces, dieron lugar a piezas escénicas tan memorables como *El amor brujo de Falla*, *Las golondrinas*, de Usandizaga o *Navidad* de Turina.

Poco antes de la República, María empezó a dar charlas feministas. Era la Presidenta de la Asociación de Educación Cívica, cuyo objetivo principal fue despertar a las mujeres de la clase media. A ellas iba dirigido principalmente, su libro *La mujer española ante la República*, escrito en 1930.

Fue elegida diputada en noviembre de 1933 por Granada. El hemiciclo de las Cortes Republicanas tuvo la oportunidad de oír la voz inteligente y sensible de María; la voz de una vocación incansable en contra de la injusticia y en favor de la igualdad. En el mes de noviembre de 1936 era designada agregada comercial a la Delegación de Berna.

Al finalizar la guerra comienza un largo exilio con la huida a Francia, donde durante la ocupación nazi, sufrió la clandestinidad y tras la liberación de París, vivió ciega, pobre y aislada del mundo.

En septiembre de 1950 se embarca rumbo a Nueva York, vivirá en México y por último en Buenos Aires, donde realiza nuevos proyectos literarios y periodísticos

A los 78 años publica en el exilio su autobiografía *Gregorio y yo*, y dos años más tarde *Una mujer por caminos de España*, que es también un libro biográfico en el que cuenta la campaña electoral en una España hambrienta y desgarrada.

"Las mujeres socialistas debemos enseñar, enseñar sobre todo una asignatura única: La solidaridad humana".

MARÍA DE LA O LEJÁRRA
(San Millan de la Cogolla 1874 – Buenos Aires 1974)

***P**edagogoa, literaturgilea, dramaturgoa, kazetaria, María Martínez Sierra izenez ezagunagoa, gerrak exiliora bidali zuen Espainia Errepublikanoko hainbeste ahotsetako bat izan zen.*

Irakasle-ikasketak egin zituen. Belgikan ikusi zuen erdiko klaseko neska-mutilek bat egiten zutela langileen kausarekin, eta haiekin sartu zen lehen aldiz Herriko Etxe batean".

1904an Juan Ramón Jiménezen eta Manuel de Fallaren lagun egin zen. 1909an Tú eres la paz izeneko bere eleberria best-sellerra izan zen.

1911ko otsailaren 21ean estreinatu zen Canción de cuna Lara antzokian. Eslava antzokian estreinatu edo berrestreinatu ziren bere lanaren titulu garrantzitsu gehienak. Azpimarratzekoak dira musikari garrantzitsuenekin eta eszenografo ausartenekin batera egin zituen libreto asko eta asko; horietatik eszena-pieza gogoangarriak atera ziren, esate baterako Fallaren El amor brujo, Usandizagaren Las golondrinas, edo Turinaren Navidad.

Errepublika baino zertxobait lehenago Maria hitzaldi feministak ematen hasi zen. Hezkuntza Zibikoko Elkartearen presidentea zen; elkarte horren helburu nagusia erdi mailako klaseko emakumeak esnaraztea izan zen. Haiei zuzendua da batez ere 1930. urtean idatzitako La mujer española ante la República liburua.

1933ko azaroan diputatu hautatu zuten Granadatik. Errepublikar Gorteetako hemizikloak Mariaren ahots bizkorra eta sentibera entzuteko aukera izan zuen, bidegabekeriaren kontra eta berdintasunaren alde nekerik gabe jarduen zuen ahotsa. 1936ko azaroan Bernako Delegazioko merkataritzako agregatu izendatu zuten.
Gerra amaitzean exilio luze baten hasiera etorri zen, Frantziara aldegitean; han, nazien okupazio garaian, klandestinitatean bizi izan zen, eta Paris liberatu ondoren, itsu, pobre eta mundutik aparte bizi izan zen.

1950eko irailean New Yorkera joateko ontziratu zen; Mexikon eta azkenik Buenos Airesen bizi izan zen, eta azken leku horretan berriz ere literatur eta kazetari proiektuak gauzatu zituen.

78 urte zituela argitaratu zuen exilioan Gregorio y yo, bere autobiografia; bi urte geroago Una mujer por caminos de España, liburu biografikoa hau ere, Espainia gose eta urratu bateko hauteskunde kanpaina kontatzen duena.

"Emakume sozialistok irakatsi egin behar dugu, batez ere gai bakar batean irakatsi: giza-elkartasuna".

MARÍA DE MAEZTU (Vitoria 1881 - Buenos Aires 1948)

Hija de un ingeniero y hacendado cubano de origen navarro, desde el año 1902 comienza a ejercer la docencia en una escuela pública bilbaína donde enseñará durante diez años, renovando los métodos memorísticos, dando clases al aire libre, creando cantinas y colonias escolares de verano y apostando por una educación laica, hecho que habría de granjearle numerosos enemigos. Perteneció a la Institución Libre de Enseñanza y tuvo entre sus maestros a Unamuno en la Universidad de Salamanca y a Ortega y Gasset en la de Madrid. Se licenció en Magisterio y se doctoró en Filosofía y Letras, En 1936 Invitada por la Universidad de Oviedo a dar unas conferencias, formula uno de sus conocidos principios pedagógicos:

"Es verdad el dicho antiguo de que la letra con sangre entra, pero no ha de ser con la del niño, sino con la del maestro."

Imparte sus doctrinas pedagógicas y feministas por Gran Bretaña, Estados Unidos, México, Cuba, Argentina y distintas ciudades españolas. Su conocimiento de idiomas, poco frecuente en la España de entonces, le valió ejercer un papel de embajadora y situarse en una posición privilegiada para representar a España en Congresos Internacionales e importar los ejemplos de asociacionismo feminista de tipo anglosajón.

En 1937 marchó a Buenos Aires, donde fijó su residencia y obtuvo la cátedra de Historia de la Educación en la Universidad, que mantuvo hasta su muerte. Volvió una única vez a España, en 1945, por asuntos personales, pero volvió a Buenos Aires. Fue nombrada "Doctora Honoris Causa" por distintas Universidades del mundo. Su cadáver fue repatriado al mausoleo familiar de Estella.

MARÍA DE MAEZTU (Vitoria 1881 - Buenos Aires 1948)

Nafar jatorriko kubatar ingeniari aberats baten alaba, 1902an hasi zen Bilboko eskola publiko batean irakaskuntzan, eta bertan jardun zuen hamar urtez. Memoria-metodoak berritu zituen, eskolak aire librean ematen zituen, jangelak eta udalekuak martxan jarri zituen eta hezkuntza laiko baten alde egin zuen apostu, eta azken horregatik etsai ugari izan zituen. Irakaskuntza Librearen Erakundekoa izan zen eta Unamuno eduki zuen Salamankako unibertsitatean irakasle, eta Ortega y Gasset Madrilekoan. Irakasle-ikasketak egin zituen eta Filosofia eta Letretan egin zuen doktoretza. 1936an, Oviedoko Unibertsitateak hitzaldi batzuk emateko gonbidaturik, bere printzipio pedagogiko ezagunetako bat azaldu zuen:

"Egia da esaera zaharrak dioen hori, alegia, letra odolarekin sartzen dela, baina ez du izan behar haurrarenarekin, irakaslearenarekin baizik".

Bere doktrina pedagogikoak eta feministak Britainia Handian, Estatu Batuetan, Mexikon, Kuban, Argentinan eta Espainiako hainbat hiritan zabaldu zituen. Hizkuntza asko zekizkien, garai hartako Espainian batere ohikoa ez zena, eta horri esker enbaxadore paperean jarduteko bidea izan zuen eta Espainia Nazioarteko Kongresuetan ordezkatzeko eta anglosajoi erako feministen elkarte-ereduak hona ekartzeko egoera ezin hobea izan zuen.

1937an Buenos Airesera joan zen, eta han egon zen bizitzen, eta bertako Unibertsitatean lortu zuen bizi arte guztian eduki zuen Hezkuntzaren Historiako katedra. Behin bakarrik itzuli zen Espainiara, 1945, bere gauzak zirela eta, baina berriro Buenos Airesera itzuli zen. Munduko hainbat unibertsitatek "Honoris Causa Doktorea" izendatu zuen.

Bere gorpua Lizarrako familia-mausoleora ekarri zuten.

MARIA MOLINER (Paniza 1900 – Madrid 1981)

Maria Molinerrek, zalantzarik gabe, XX. mendean emakume izateko estilo argia irudikatzen du: emakume unibertsitaria izan eta gainera lanbidean jardun zuten aurrendarien taldekoa da.

1920an, Soriako Almazanera joan zen familiarekin, eta gero, Madrilera. Han, Américo Castrorekin egin zituen ikasketak Irakaskuntzako Instituzio Askean, eta hark piztu zion linguistikarako eta gramatikarako interesa.

1918 eta 1921 bitartean, Filosofia eta Letrak lizentziatura egin zuen (Historiako sailean) Zaragozako Unibertsitatean. Bikain aterata eta sari berezia lortuta amaitu zuen. 1922an, Artxibozainen, Liburuzainen eta Arkeologoen kidego fakultatiboan sartu zen, oposizioak eginda. Simancaseko Artxiboan jardun zuen lehendabiziko aldian.

Gogo biziz lagundu zuen Errrepublikaren Misio Pedagogikoetan eta, bereziki, landa-liburutegiak antolatzen.

Gerra zibila amaitu zenean, bere lagunak errepresaliatu egin zituzten politikoki, eta asko atzerrira joan ziren. Bera birgaitu egin zuten, eta 18 postu galdu zituen Artxibozainen Kidegoko eskalafoian.

1950ean, Diccionario del uso del español delakoa idazten hasi zen, bi liburukitan; 1967 aldera argitaratuko zuten gero. Obra hori interes berezikoa da, eta hainbat alditan hobetu eta berriz argitaratu izan dute.

Maria Moliner representa sin duda, todo un estilo de ser mujer en el siglo XX: pertenece al grupo de las pioneras universitarias que ejercieron además una profesión.

En 1902 se traslada con su familia a Almazán (Soria) y seguidamente a Madrid donde cursó estudios en la Institución Libre de Enseñanza con Américo Castro, quien suscitó su interés por la lingüística y la gramática.

Entre 1918 y 1921 cursó la licenciatura de Filosofía y Letras (sección Historia) en la universidad de Zaragoza que culminó con sobresaliente y premio extraordinario. En 1922 ingresó por oposición en el cuerpo Facultativo de Archiveros, Bibliotecarios y Arqueólogos. Con primer destino en el Archivo de Simancas.

Colaboró entusiásticamente en las Misiones Pedagógicas de la Republica y especialmente en la organización de las bibliotecas rurales.

En 1950 comienza a escribir el *Diccionario del uso del español,* en dos volúmenes que sería publicado hacia 1967. Obra de extraordinario interés, que ha sido mejorada y reeditada en diversas ocasiones.

MARIA TERESA LEON (Logroño 1903-1988)

Con solo 20 años contrajo matrimonio por imposición paterna. En 1929 se va a Madrid a estudiar Filosofía y Letras, rompiendo con su marido. Forma parte del Lyceum Club y se dedica a escribir y dirigir teatro. Conoce a Rafael Alberti, a quien introduce en el PCE, y con el que se casa en 1932.

Viaja por toda Europa estudiando el teatro europeo y desarrolla una intensa actividad antifascista en España. Iniciada la guerra, hizo de la escritura y del teatro un arma de lucha y expresión de su compromiso político. Tras la derrota trabaja como locutora de radio y traductora en París y posteriormente en Roma. En 1970 publica un libro de memorias.

Volvió a España en 1977, ya enferma, junco con Alberti, cuya figura ha eclipsado siempre su propia vida y obra.

20 urte baino ez zituela ezkondu zen, aitaren aginduz. 1929an, Madrilera joan zen Filosofia eta Letrak ikastera, bere senarrarengandik bananduta. Lyceum Clubeko partaide izan zen, eta antzerkiak idatzi eta zuzendu zituen. Rafael Alberti ezagutu zuen, eta berak sartu zuen PCE alderdian. Harekin ezkondu zen 1932an.

Europa osoan bidaiatu zuen, Europako antzerkia ikasiz; eta jarduera antifaxista gogotsuan jardun zuen Espainian. Gerra hasi zelarik, borrokarako eta bere konpromiso politikoaren adierazpiderako arma gisa erabili zituen idazkuntza eta antzerkia. Porrotaren ondoren, irratiko esatari- eta itzultzaile-lanetan ibili zen Parisen, eta gero, Erroman. 1970ean, bere oroitzapenen liburua argitaratu zuen.

1977an itzuli zen Espainiara, Albertirekin batera, jada gaixo zegoela. Albertiren izenak beti itzal egin dio haren bizitzari eta obrari.

MARIA ZAMBRANO RODRIGUEZ (1907 Vélez Málaga 1991 Madrid)



Pensadora y escritora española. En 1926 se instaló con su familia en Madrid. Licenciada en filosofía y letras, fue discípula de Ortega y Gasset y de Zubiri, y profesora de filosofía en la Universidad de Madrid.

Residió con su marido en Chile durante la República, regresando a España en el transcurso de la Guerra Civil, para partir hacia el exilio en 1939. Durante su etapa en el exilio ejerció la docencia en México, Cuba y Puerto Rico. En 1964 se trasladó a Francia; en 1978 fijó su residencia en Ginebra y en 1984 volvió definitivamente a España, fijando su domicilio en Madrid.

Premio Príncipe de Asturias 1981, proclamada doctora *honoris causa* por la Universidad de Málaga y premio Miguel de Cervantes 1988, María Zambrano es la pensadora española más importante de la segunda mitad del siglo XX y la primera mujer galardonada con el Cervantes, que por primera vez se concedió a un pensador.

La obra de María Zambrano, en la que confluyen la esperanza, el misterio y el sueño, es un documento trascendental que acota la realidad por medio de la razón poética. Zambrano profundiza en la búsqueda de la libertad y del saber, buceando en la historia y la religión, uniendo, en su pensamiento, filosofía, razón, revelación y poesía, y manifestándose a través de la palabra creadora.

Pentsalari eta idazle espainiarra. 1926an, Madrilen jarri zen bizitzen bere familiarekin. Filosofia eta letretan lizentziatua, Ortega y Gasseten eta Zubiriren jarraitzailea izan zen, eta filosofiako irakaslea Madrileko Unibertsitatean.

Errepublika garaian, Txilen bizi izan zen bere senarrarekin, eta Gerra Zibilean itzuli zen Espainiara, eta 1939an atzerrira joan behar izan zuen. Atzerrian, irakaskuntzan aritu zen Mexikon, Kuban eta Puerto Ricon. 1964an, Frantziara joan zen. 1978an, Ginebran jarri zen bizitzen, eta 1984an, betiko itzuli zen Espainiara, Madrilen bizitzeko.

1981eko Principe de Asturias Saria eman zioten, honoris causa doktorea izendatu zuten Malagako Unibertsitatean eta Miguel de Cervantes saria eman zioten 1988an. Maria Zanbrano XX. mendeko Espainiako pentsalaririk garrantzitsuena da, eta Cervantes saria jaso duen lehenengo emakumea; gainera, lehenengo aldia zen pentsalari bati ematen ziotela.

Maria Zanbranoren obra, zeinean itxaropena, misterioa eta ametsa batzen diren, dokumentu traszendentala da, arrazoi poetikoz errealitatea mugatzen duena. Askatasunaren eta jakinduriaren bilaketan sakontzen du Zanbranok, historian eta erlijioan murgilduz, bere pentsaeran filosofia, arrazoia, errebelazioa eta poesia batuz eta hitz sortzailearen bidez adieraziz.

MARITXU ANATOL ARISTEGUI

(Irun 1909-1981)

Conocida como "La contrabandista", de familia bien situada, su padre poseía una agencia de aduanas, un hermano ingeniero, otro sacerdote y el tercero logró la Legión de Honor por sus investigaciones químicas. Maritxu entró a trabajar en la agencia con gran escándalo, pues se consideraba que no era una actividad apropiada para una mujer. Tenía doble nacionalidad, española y francesa, y muchos deseos de aventura y acción, que no se saciaban con el papeleo de la oficina ni con asuntillos de contrabando, principal actividad del Irún de la época.

Cuando estalló la guerra civil su familia se trasladó al otro lado del Bidasoa. En el verano de 1940 los alemanes confiscaron parte de su vivienda. La Resistencia le ofreció colaborar en tareas informativas y de paso de fugitivos y ella dijo sí sin pensarlo dos veces. Su temperamento inquieto encontró por fin acomodo en las actividades clandestinas. Abastecía a los aviadores aliados derribados, de alimentos y calzado que conseguía en caseríos o en España, concertaba citas, buscaba alojamientos...etc. Pasó por la comisaría de la Gestapo en Bayona y por la prisión de Biarritz. Logró mantenerse firme en los interrogatorios y la soltaron.

En la Red Comète para la que trabajaba desconfiaban de sus métodos. Maritxu se movía con soltura en los familiares ambientes del contrabando, donde proliferaban los confidentes. Uno de los contrabandistas de su grupo fue visto saliendo de la Commandantur de Bayona. Ella lo defendió, afirmando que mantener tratos con los alemanes permitía obtener informaciones útiles para los pasos. Pero lo cierto es que en Comète descubrieron con horror que había bastantes personas que sabían de su existencia por indiscreciones de los contrabandistas. Por otra parte, el contacto de Maritxu alojaba a los aviadores en una casa donde residía un agente de la Gestapo y la amante de un oficial nazi. Así que prescindieron de ella y de su equipo, encomendándole únicamente cambiar pesetas para el trayecto a través de España. Finalmente los peores temores se cumplieron y el 13 de julio de 1943 el grupo de Marichu fue detenido por la Gestapo. Tres fueron deportados a Alemania – de donde volvieron maltrechos pero vivos - y Marichu logró salvarse. Sin embargo, su forma de actuar independiente y personal gustó poco en Londres y no obtuvo ninguna de las medallas que se repartieron con generosidad tras la Liberación. En 1945 Marichu volvió a Irún donde dirigió su propia agencia de aduanas en los años sesenta. Falleció en 27 de agosto de 1981.

MARITXU ANATOL ARISTEGUI

(Irun 1909-1981)

"Kontrabandista" izenez ezagutua, modu oneko familia batekoa, bere aitak aduana-agentzia bat zuen, eta anai ingeniaria, beste bat apaiza eta hirugarren bat bere kimikako ikerketak zirela medio Ohorezkoa Legioa lortu zuena. Maritxu agentzian hasi zen lanean, eta horren inguruan sekulako eskandaloa izan zen, uste baitzen ez zela lan egokia emakume batentzako. Nazionalitate bikoitza zuen, espainiarra eta frantziarra, eta abenturarako eta ekintzarako sekulako gogoa, bulegoko paper artean eta garai hartan Irunen aktibitate nagusia zen kontrabandoko kontuekin asetzen ez zen gogoa.

Gerra Zibila hasi zenean bere familia Bidasoaren beste aldera joan zen. 1940ko udan alemanek bere etxearen zati bat konfiskatu zuten. Erresistentziak informazio lanetan aritzeko eta iheslariei pasatzen laguntzeko parada eman zion, eta Maritxuk bi aldiz pentsatu gabe baietz esan zuen. Geldigaitza zen, baina azkenean aurkitu zuen bere tamainako lana jaraduera klandestinoetan. Botatako hegazkinlari aliatuak baserrietan edo Espainian lortutako elikagaiz eta oinetakoz hornitzen zituen, hitzorduak antolatzen zituen, ostatua bilatzen zuen, etab. Gestaporen Baionako komisaldegitik eta Miarritzeko presondegitik pasa zen. Lortu zuen tinko eustea galdeketetan eta askatu egin zuten.

Comète Sarearentzat lan egiten zuen, baina haiek ez ziren bere metodoez fiatzen. Maritxu erraztasunez mugitzen zen hain ezagunak zituen eta konfidentez beterik zeuden kontrabando giroetan. Bere taldeko kontrabandistetako bat Baionako Commandantur-etik irteten ikusi zuten. Maritxuk, ordea, defendatu egin zuen, alemanekin tratuak izateak pasaguneetarako informazio baliotsuak lortzen laguntzen zuela esanaz. Baina egia zera da, Comètekoak izuturik konturatu zirela haien berri zekien pertsona asko zegoela kontrabandisten indiskrezioen erruz. Bestalde, Maritxuren kontaktuak Gestapoko agente bat eta ofizial nazi baten maitalea bizi ziren etxean ematen zien ostatu hegazkinlariei. Beraz, alde batera utzi zuten Maritxu eta bere taldea, eta Espainia zeharkatu ahal izateko pesetak aldatzeko eskatu zioten soilik. Azkenean susmo txar guztiak bete egin ziren eta 1943ko uztailaren 13an Gestapok atxilotu egin zuen Maritxuren taldea. Hiru Alemaniara deportatu zituzten- eta handik hebaindurik baina bizirik itzuli ziren- eta Maritxuk onik ateratzea lortu zuen. Dena dela, bere kontura lan egiteko zuen modu pertsonal hura ez zen batere gustatu Londonen eta Liberazioaren ondoren eskuzabaltasunez banatu ziren dominetako bat ere ez zioten eman. Maritxu 1945ean Iruna itzuli eta bertan bere aduana-agentzia zuzentzen aritu zen hirurogeiko hamarkadan. 1981eko abuztuaren 27an hil zen.

MATILDE DE LA TORRE GUTIÉRREZ
(Cabezón de la Sal 1884 – Mexico 1946)

De familia hidalga y de tradición liberal, se crió en un ambiente idóneo para el desarrollo cultural. Su padre, era notario y su abuelo materno, Cástor Gutiérrez, había fundado en 1856 el periódico "La Abeja Montañesa", y un hijo de éste fue el promotor y director de "El Atlántico".

En 1913 contrajo matrimonio con su primo Sixto Gutiérrez en Perú. Aficionada a escribir publica su primera novela *Jardín de las damas curiosas*. Fundó la Academia Torre, un centro de enseñanza donde hizo realidad su sueño de difundir el idealismo y el humanismo que la caracterizaron. Luego escribiría el ensayo *Don Quijote, Rey de España* (1928), donde denuncia el absentismo ciudadano que señala como el culpable de los problemas de España.

También escribió *El Ágora* (1930), *El banquete de Saturno* (1932) y ya en Francia *Mares en la sombra* (1940), dramático relato de su contacto con la guerra.

Destacó por su aspiración en la lucha por las libertades sociales y por la igualdad entre hombres y mujeres, comprometiéndose políticamente. En 1931 se afilió al PSOE, ocupando el cargo de directora de Política Arancelaria en el Gobierno de Largo Caballero. Fue además una de las cinco diputadas a las primeras Cortes ordinarias de la segunda Republica.

Publicó miles de artículos en prensa local, nacional y mexicana, destacando "El Socialista" y La Región".

Tras la guerra civil se exilió a México, país donde murió.

Tradizio liberaleko kapare-familiakoa, kultura garatzeko giro aproposean hezi zen. Bere aita notarioa zen, eta ama aldeko aitona, Cástor Gutiérrez, 1856an "La Abeja Montañesa" sortu zuena; honen semeetako bat, berriz, "El Atlántico"ren sustatzailea eta zuzendaria.

1913an Perun ezkondu zen bere lehengusu Sixto Gutiérrezekin. Idazteko zaletasuna zuen eta bere lehen eleberria, Jardín de las damas curiosas, argitaratu zuen. Torre Akademia sortu zuen, hain bereak zituen idealismoa eta humanismoa zabaltzeko ametsa egia bilakatzen lagundu zion irakas-zentroa. Ondoren Don Quijote, Rey de España (1928) entsegua idatzi zuen; bertan Espainiak 98ko hondamenaren ondoren pairatzen zituen arazo guztien erruduna hiritarren absentismoa zela salatzen zuen.

Idatzi zituen hauek ere: El Ágora (1930), El banquete de Saturno (1932) eta jadanik Frantzian zela Mares en la sombra (1940), azken hau gerrarekin izan zuen harremanaren kontaketa dramatikoa.

Askatasun sozialaren eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borrokagatik nabarmendu zen, eta horrek politikoki konprometitzera eraman zuen. 1931ean PSOEn afiliatu zen, eta muga-zergen politikako zuzendari-kargua izan zuen Largo Caballeroren Gobernuan. Gainera bigarren Errepublikako ohiko Gorteetako bost emakume-diputatuetako bat izan zen.

MATILDE UCELAY MAORTUA (MADRIL 1912)

Familia errepublikano batean jaioa. García Lorcaren laguntzaile zen Pura Maortuaren alaba, Arkitektura ikasi zuen lehen emakume espainiarra izan zen, eta Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan 1936ko uztailean graduatu ondoren, lehenengo amakume arkitekto bilakatu zen.

Arkitektoen Elkargoko Batzordekoa izan zenez, gerra ostean errepresaliatu egin zuten, bere lanbidean jardutea bost urtez eragotziz eta kargu publikoetan jarduteko gaitasuna betiko kenduz. Horrenbestez, bere lankideetakoren batek sinatu behar izaten zituen berak egindako proiektuak.

Nacida en una familia republicana. Hija de Pura Maortua, colaboradora de García Lorca, es la primera mujer española que estudia Arquitectura, convirtiéndose en la primera arquitecta tras graduarse en la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de Madrid en julio de 1936.

Al haber formado parte de la Junta del Colegio de Arquitectos, fue represaliada tras la guerra, condenándosela a cinco años sin poder ejercer su profesión e inhabilitación a perpetuidad para ejercer cargos públicos. Tuvo por tanto que trabajar en proyectos que luego firmaba alguno de sus compañeros

MIKA ETCHEBEHERE (1902 – 1992)

La legendaria historia de la argentina Mika Etchebehere, la única mujer con mando de tropa en el Ejército republicano, comenzó con el inicio de la Guerra Civil Española.

Mica Felman nace en Santa Fe, el 14 de marzo de 1902, hija de inmigrantes judíos rusos que huían de la persecución. A los 18 años, Mica se va a estudiar odontología a Buenos Aires. Ya tiene fuertes contactos con la izquierda y es en el grupo Insurrexit donde conoce a Hipólito Etchebehere, hijo de vascos franceses.

El murió en combate. Ella lideró y luchó junto a su propia columna. En la decisiva batalla por Madrid, en noviembre de 1936, la capitana Mika Etchebehere ocupa un sector del frente en la zona de Moncloa. Mika. Mal armados, los soldados siguen el ejemplo de valor y convicción de su joven comandante y no retroceden pese a la lluvia de balas de ametralladora y de obuses.

La epopeya de Mika continúa hasta que sus propios milicianos deciden elegirla su capitana, la única mujer con mando de tropa en el Ejército republicano, a la que no sólo adoran y respetan sino que siguen hasta la muerte en todos los combates en que la argentina dirige a sus soldados.

Mika no huye cuando los fascistas toman la ciudad. La detiene una patrulla y enseña su pasaporte francés que la salva. Se refugia en el Liceo Francés y luego sus amistades de París la rescatan. Vuelve a la Argentina y retoma sus viejas amistades, pero en 1946 viaja a París, donde libra sus últimas batallas en las barricadas de 1968 y, años después, en las manifestaciones contra los crímenes de la dictadura militar argentina.

MIKA ETCHEBEHERE (1902 – 1992)

***M**ika Etchebehere argentinarra emakume bakarra izan zen Armada errepublikarrrean tropa-agintea izan zuena, eta Espainiako Gerra Zibilean hasi zen haren historia legendarioa.*

Mica Felman Santa Fen jaio zen, 1902ko martxoaren 14an. Jazarpenetik ihesi zihoazen errusiar immigrante judutarren alaba zen. 18 urte zituela, Mica odontologia ikastera joan zen Buenos Airesera. Dagoeneko harreman sendoak ditu ezkerrarekin, eta Insurrexit taldean ezagutu zuen Hipolito Etchebehere frantses euskaldunen semea.

Hura borrokan hil zen. Zutabearen lidergoa hartu, eta harekin batera borrokatu zen Mica. Madrilen aldeko borrokaldi erabakiorrean, 1936ko azaroan, Mika Etchebeherek frontearen sektore bat hartu zuen Moncloa aldean. Gaizki armatuta, soldaduek beren komandantearen kemenaren eta uste osoaren ereduari jarraitu zioten, eta ez zuten atzera egin, metrailadorearen bala-euria eta obusak gorabehera.

Mikaren epopeiak aurrera jarraitzen du, eta milizianoek beren kapitain izatea erabakitzen dute. Armada errepublikarreko tropa-agintea zuen emakume bakarra. Miretsi eta errespetatu ez ezik, heriotzeraino jarraitu zioten, argentinarrak bere soldaduak zuzentzen dituen borrokaldi guztietan.

Mikak ez zuen ihes egin faxistek hiria hartu zutenean. Patrulla batek atxilotu zuen, eta bere pasaporte frantsesa erakutsita salbatu zen. Lizeo Frantsesean babesten da, eta gero, Pariseko bere lagunek erreskatatu zuten. Argentinara itzuli, eta lagun zaharrekin bildu zen berriro. Baina 1946an, Parisera joan zen, eta han izan zituen bere azken borrokaldiak 1968ko barrikadetan. Urte batzuk geroago ere jardun zuen Argentinako diktadura militarraren krimenen aurkako manifestaldietan.

NEUS CATALA PALLEJÁ (Els Guiamets-Priorat 1915)

Hija de payeses, trabajó en el campo y fue a la escuela hasta los 14 años. A partir de los 15 años empezó a llevar las cuentas del Sindicato Agrícola de Guiamets.

De padre socialista, en el año 1931, contando ella con 16 años, «estalló la libertad con la República». En Julio de 1936, Neus, luchadora incansable, organizó las juventudes de su pueblo y fue delegada comarcal de las Juventudes Socialistas Unificadas de Catalunya. En 1937 partió para Barcelona, donde cursó estudios de enfermería. En febrero de 1939, cuando los hijos huérfanos de los republicanos fueron llevados a Francia, ella fue para atenderlos como enfermera.

De los exiliados a Francia, unos volverían a España y otros se quedarían en Francia trabajando en la Resistencia. Entre ellos estaba Neus. «Cuando entrábamos en la Resistencia éramos conscientes del peligro. Teníamos un 90% de posibilidades de caer. La Resistencia empezó en las zonas de Francia donde había mujeres», añade. Muchas de ellas eran utilizadas como enlaces en la densa red de información de los pasos de montaña, puntos de apoyo, suministros. Neus se casó en Francia con el francés Albert Roiger el 29 de diciembre de 1942, más tarde muerto en deportación. El 11 de noviembre de 1943 fue arrestada en el 'maquis' de Turnac junto a su marido por las SS francesas por haber organizado la Resistencia en Francia.

Estuvo prisionera en varias cárceles francesas y el 5 de enero de 1944 fue enviada al campo de exterminio internacional de Ravensbrück, donde estuvo recluida durante 15 meses, campo en el que llegaron a estar concentradas 11.000 mujeres y solo había lugar para 3.000.

NEUS CATALA PALLEJÁ (Els Guiamets-Priorat 1915)

Payesen alaba, landan aritu zen lanean, eta 14 urte arte joan zen eskolara. 15 urtetik aurrera, Guiamets-eko Nekazari Sindikatuko kontuak eraman zituen.

Aita sozialista, 1931n, berak 16 urte zituela, «askatasunak zart egin zuen Errepublikarekin». 1936ko uztailean, Neusek, borrokalari nekaezina izaki, bere herriko gazteria antolatu zuen, eta eskualdeko ordezkaria izan zen Kataluniako Gazteria Sozialista Batuetan. 1937an, Bartzelonara joan zen, erizaintzako ikasketak egitera. 1939ko otsailean, errepublikarren umezurtzak Frantziara eraman zituztenean, bera ere haiekin joan zen erizain gisa zaintzera.

Frantziara atzerriratutakoetatik, batzuk Espainiara itzuli ziren, eta beste batzuk Frantzian geratu ziren Erresistentzian lanean. Haien artean zen Neus. «Erresistentzian sartzen ginenean, bagenekien zer arrisku zegoen. %90eko aukera geneukan, erortzeko. Erresistentzia emakumeak zeuden tokietan hasi zen Frantzian», esan du. Haietako askok lotura-lanak egiten zituzten mendiko pasabideen, babes-lekuen, hornikuntzen informazio sare zabalean. Neus Frantzian ezkondu zen Albert Roiger-ekin 1942ko abenduaren 29an; Albert deportatuta hil zen geroago. 1943ko azaroaren 11n, Turnac-eko "maquis"en atxilotu zuten, bere senarrarekin batera, SS frantziarrek, Frantzian Erresistentzia antolatu izanagatik.

Preso egon zen Frantziako hainbat kartzeletan, eta 1944ko urtarrilaren 5ean Ravensbrück-eko nazioarteko sarraskitze-esparrura eraman zuten, eta 15 hilabete igaro zituen. Esparru hartan 11.000 emakume izatera ere heldu ziren, eta 3.000 laguntzako tokia bakarrik zegoen.

PETRA CUEVAS (Orgaz 1908)

Trabajadora desde niña por necesidades familiares, a los 14 años ya era bordadora y continuó en distintos oficios, todos relacionados con el textil.

Desde jovencita quiso participar en política, y en los años 30 llegó a ser Secretaria del Sindicato de la Aguja, que luchó por primera vez por los derechos laborales de las costureras, sastras y bordadoras, a las que los sindicatos tradicionales ignoraban.

Como militante comunista, en la guerra civil organizó talleres de costura del Socorro Rojo en Madrid para cubrir las necesidades del frente. Al finalizar la guerra fue detenida y sufrió largos años de cárcel. Al recobrar la libertad retomó su actividad política que aún mantiene.

Umetatik langilea, familiak hala behar eta. 14 urte zituela, brodatzailea zen jada, eta hainbat ofiziotan jardun zuen gero, guztiak ere ehungintzarekin lotuak.

Gazte-gaztetatik parte hartu nahi izan zuen politikan, eta 30eko urteetan, Orratzaren Sindikatuko idazkari izan zen. Horrek borrokatu zuen lehen aldiz emakume jostunen, sastreen eta brodatzaileen lan-eskubideen alde, betiko sindikatuek ahaztuta baitzeuzkaten.

Militante komunista zen aldetik, gerra zibilean, Sorospen Gorriko josteko tailerrak antolatu zituen Madrilen, fronteko beharrei erantzute aldera. Gerra amaitu zenean, atxilotu egin zuten, eta urte asko igaro zituen kartzelean. Aske utzi zutenean, berriz ekin zion politikari, eta oraindik ere horretan dihardu.

POLIXENE TRABUDUA (Sondika 1912)

Profesora, política y poeta. Estudió la carrera de Magisterio en Bilbao. Al casarse con un futbolista del Athletic de familia nacionalista se afilió al PNV y participó en mítines junto a Haydée Agirre, Julene Urcelay y Maria Teresa Zabala. Fueron detenidas en 1933 y gracias a la presión popular quedaron en libertad, circunstancia que le valió entablar relaciones con personajes políticos de gran notoriedad.

A partir de ese momento se incrementa su producción literaria, así como su actividad política. Partidaria de transmitir las ideas revolucionarias de Gandhi pensó en su posible aplicación, pero se dio cuenta de que aquí no se daban circunstancias para llevarlas a efecto.

El inicio de la guerra civil la sorprendió en Donostia y tardó varios días en volver a Bilbo. Su marido se alistó en un batallón de gudaris y Polixene marchó junto con su padre a Gernika donde tuvieron que soportar el bombardeo. Dada la situación volvió a Sondika donde recibió la visita de su marido quien notificó la proximidad de las tropas franquistas. Entonces decidió marchar al puerto de Bilbao y tomó un barco que la llevó a Santander y allí otro para Burdeos.

Al tener conocimiento de lo que estaba ocurriendo con los niños en euskalherria, atraviesa clandestinamente varias veces la frontera para colaborar con el gobierno vasco.

Finalizada la guerra se exilia en Francia y vuelve a España en 1950, pero a los dos años marchó definitivamente a América, concretamente a Venezuela dedicándose al periodismo, crear ikastolas y casas de cultura vascas.

POLIXENE TRABUDUA (Sondika 1912)

Irakaslea, politikoa eta poeta. Magisterioko karrera egin zuen Bilbon. Familia nazionalista bateko Athleticeko futbolari batekin ezkonduta, EAJn afiliatu zen, eta mitinetan parte hartu zuen Haydée Agirrerekin, Julene Urcelayrekin eta Maria Teresa Zabalarekin batera. 1933an atxilotu egin zituzten, eta herriaren presioari esker, aske utzi zituzten. Inguruabar horren ondorioz, sona handiko politikoekin egin zituen harremanak.

Ordutik aurrera, hazi egin zen haren literatur produkzioa eta jardun politikoa. Ghandiren ideia iraultzaileak besterentzearen aldekoa zen, eta pentsatu zuen aplikagarri zirela, baina konturatu zen hemen ez zegoela baldintzarik haiek aurrera eramateko.

Gerra zibilaren hasierak Donostian harrapatu zuen, eta egun batzuk behar izan zituen Bilbora itzultzeko. Bere senarra gudarien bataloi batean sartu zen, eta Polixene Gernikara joan zen bere aitarekin. Han, bonbardaketa jasan behar izan zuten. Egoera zein zen ikusita, Sondikara itzuli zen; han, senarrak bisitatu zion, eta hark esan zion tropa frankistak hurbil zirela. Orduan, Bilboko portura joatea erabaki zuen, eta itsasontzi bat hartu zuen Santanderrera, eta han, beste bat, Bordelera.

Euskal Herrian umeekin zer gertatzen ari zen jakin zuenean, muga klandestinitatean zeharkatu zuen hainbatetan, eusko jaurlaritzari laguntzeko.

Gerra amaitu zenean, Frantziara azterriratu zen. 1950ean itzuli zen Espainiara, baina handik bi urtera Amerikara joan zen betiko; Venezuelara, hain zuzen. Kazetaritzan jardun zuen, eta ikastolak eta euskal kultur etxeak sortzen ibili zen.

ROSARIO SÁNCHEZ MORA (Villarejo de Salvanés-Madril 1919)

***7** urte zituen miliziano bezala bolondres alistatu zenean, Gerra Zibilaren lehen egunetan Madril hartu nahi zuten tropa faxisten kontra borrokatzeko.*

Frentera iritsitakoan Rosario eta bere lagunak lehenengo su-lerroko txoke-unitate batean kokatu zituzten, hogeita sei urteko mutil sendo, erdi tamainako eta bizar sarriko baten aginduetara: Valentín González, guztiek "El Campesino" goitizenez deitzen ziotena. Zazpi kilo pisuko mosketoiarekin eta lubakian armei buruz jasotako nozio apurrekin.

Borrokan bi aste igarota errebeldeei eutsi ahal izan zieten, eta ondoren mendiko gerra hark bataila irekia izateari utzi zion eta kokapen-bataila bihurtu zen. Rosario orduan dinamitari atalera eraman zuten; atal hori Emilio González González kapitainaren aginduetara zegoen; kapitain hori Sama de Langreoko (Asturias) mehatzari harri-zulatzailea zen, fulminanteak eta dinamita erabiltzen zekiena. Taldeak su-lerrotik bost bat kilometrora zuen bere kanpalekua; bertan bolborategi txiki bat zeukaten eta han gordetzen zituzten leherkariak eta egiten zituzten oinarrizko lehergailuak. Lehergailu haiek esne kondentsatuko ontziak ziren, esku-granada bilakatu arte berziklatzen zirenak. Prozesua xinplea zen: ontzia iltzez, torlojuz eta beiraz betetzen zen eta dinamita isurtzen zen haien gainean. Gero ontzia bere estalkiaz ixten zen eta lotu egiten zen lokarri batez eta zapi batzuez, barrukoa ez isurtzeko.

Iraileko goiz batean, Rosario eta bere lagunak dinamita-kartutxoz deskarga nola egin ikasten ari ziren, kartutxo horiek ontziekin egindako lehergailu haiek baino erabiltzen askoz errazagoak baitziren. Bere metxari su eman zionean, haren txistu-hotsa entzun zuen. Aurreko gauean euria egin zuen eta bustita zegoen. Barrutik erretzen zen, baina kanpotik ez, eta ez zuen garraren berotasuna sumatu bere erpuruaren hatzazalean, horrek adierazten baitzuen kartutxoa botatzeko garaia zela. Kartutxoa bere eskuin eskuan lehertu zen, eta eskumuturra baino goragotik txiki-txiki eginda geratu zen eskua. Larri zauriturik erietxera eraman eta operatu egin zuten, eta haren bizitza salbatzea lortu zuten.

Erabat sendatzerako berriz ere borrokara itzuli zen eta hainbat lan egin zituen; eta gerra bukatzean atxilotu egin zuten eta heriotza zigorra jarri zioten epaiketa sumarisimoan, gero 30 urteko gartzelaz konmutatu bazioten ere.

Gaur egun emakume errebeldea izaten segitzen du, eta buru izugarria duena, bere oroitzapenak uztai-koaderno batean idatziz gordetzen saiatzen dena.

Miguel Hernández poetak olerki baten bidez "Rosario dinamitera" bezala hilezkortu zuen.

ROSARIO SÁNCHEZ MORA (Villarejo de Salvanés-Madrid 1919)

Tenía 17 años cuando se alistó voluntaria como miliciana para luchar contra las tropas fascistas que pretendían tomar Madrid en los primeros días de la Guerra Civil.

Cuando llegó al frente, Rosario y sus compañeros fueron encuadrados en una de las unidades de choque que se batían en primera línea de fuego, a las órdenes de un muchacho de veintiséis años, robusto, de mediana estatura y barba cerrada: Valentín González, al que todos apodaban "El Campesino". Con un mosquetón de siete kilos de peso y sin otras nociones de armas que las que recibió en la trinchera.

Tras dos semanas de enfrentamientos, en las que lograron contener a los rebeldes, la guerra en la sierra dejó de ser una batalla abierta para convertirse en una batalla de posiciones. Rosario fue destinada entonces a la sección de dinamiteros, que estaba al mando del capitán Emilio González González, un minero barrenista de Sama de Langreo (Asturias) especialista en el manejo de los fulminantes y la dinamita. El grupo tenía su base a unos cinco kilómetros de la línea de fuego, donde disponían de un pequeño polvorín en el que almacenaban los explosivos y se confeccionaban unas rudimentarias bombas. Los artefactos en cuestión eran botes de leche condensada que se reciclaban hasta convertirse en granadas de mano. El proceso era simple: se llenaba la lata con clavos, tornillos y cristales, y sobre ellos se vertía la dinamita. Después se cerraba el bote con su propia tapa y se ataba con una cuerda y trapos para que no se derramase el contenido.

Una mañana de septiembre, Rosario y sus compañeros aprendían a efectuar una descarga con cartuchos de dinamita, mucho más fáciles de manejar que las bombas lata. Cuando prendió su mecha, la oyó silbar. La noche anterior había llovido y estaba húmeda. Se quemaba por dentro, pero no por fuera, y no sintió el calor de la llama en la uña de su dedo pulgar, que indicaba el momento de lanzarla. El cartucho estalló en su mano derecha, que quedó destrozada por encima de la muñeca. Herida de gravedad, la operaron en el hospital, donde consiguieron salvarle la vida.

Sin haberse recuperado totalmente volvió a la lucha realizando diferentes actividades y al finalizar la guerra fue detenida y condenada a muerte en juicio sumarísimo, pena que le fue sustituida por la de 30 años de prisión.

Hoy, sigue siendo una mujer rebelde y de una memoria prodigiosa, que se afana en conservar sus recuerdos escribiéndolos en enormes cuadernos de anillas.

Fue el poeta Miguel Hernández quien la inmortalizó en un poema como "Rosario dinamitera".

Rosario dinamitera

Rosario, dinamitera,
sobre tu mano bonita
celaba la dinamita
sus atributos de fiera.
Nadie al mirarla creyera
que había en su corazón
una desesperación,
de cristales, de metralla
ansiosa de una batalla,
sedienta de una explosión.

Era tu mano derecha,
capaz de fundir leones,
la flor de las municiones
y el anhelo de la mecha.
Rosario, buena cosecha,
alta como un campanario
sembrabas al adversario
de dinamita furiosa
y era tu mano una rosa
enfurecida, Rosario.

Buitrago ha sido testigo
de la condición de rayo
de las hazañas que callo
y de la mano que digo.
¡ Bien conoció el enemigo
la mano de esta doncella,
que hoy no es mano porque de ella,
que ni un solo dedo agita,
se prendó la dinamita
y la convirtió en estrella !

Rosario, dinamitera,
puedes ser varón y eres
la nata de las mujeres,
la espuma de la trinchera.
Digna como una bandera
de triunfos y resplandores,
dinamiteros pastores,
vedla agitando su aliento
y dad las bombas al viento
del alma de los traidores.

Miguel Hernández

SEGUNDA LÓPEZ VIGO

Casada y con hijos de muy corta edad, vivía con su familia en una de las casas junto a la carretera de Behobia y frente a la fábrica de cerillas. Fue, como trabajadora de esta fábrica, la que luchó con más fuerza en las reivindicaciones obreras de los años treinta.

Era una mujer de facciones enérgicas y de gesto resuelto que pronunciando palabras contundentes estimulaba a sus compañeras de trabajo para que no se quedasen atrás en la conquista de derechos. Las cerilleras sufrieron graves crisis de trabajo.

La Federación Nacional de Obreros y Obreras Cerilleros exigió al Gobierno que no se permitiera alterar la jornada laboral de ocho horas, que se prohibiera el trabajo de los menores de edad en las fábricas de cerillas, así como el trabajo a domicilio, y que estableciese un servicio de beneficencia y socorros por enfermedad.

Pero cuando la situación de la fábrica alcanzó una mayor virulencia fue al decretarse tres días de trabajo a la semana.

Las cerilleras se encerraron en la fábrica y fue Segunda la que, con su ejemplo, insistió para que persistieran en el encierro. Ante la actitud de las cerilleras, justificadamente levantisca, la Guardia de Asalto -conocida como los Pichis- cercó la fábrica. Varias de las cerilleras allí encerradas estaban en periodo de lactancia y hubo que llevarles los niños a la fábrica para que fueran amamantados. Segunda fue siempre una honrada luchadora de gran carácter.

Ezkondua eta oso adin txikiko seme-alabak. Bere familiarekin batera bizi zen Behobiako errepidearen ondoko etxeetako batean, pospolo-fabrikaren parean. Fabrika horretako langile bezala, bera borrokotu zen indartsuen hogeita hamarrreko langileen erreibindikazioetan.

Itxura kementsuko emakumea zen, keinu zorrotzekoa, eta haren hitz irmoak pizgarri izaten ziren lankideentzako, eskubideak lortzeko borrokan atzera gera ez zitezen. Pospologileek lan krisi handia izan zuten.

Langile Poxpologileen Federazio Nazioanalak zortzi orduko lanaldia ez aldatzen uzteko eskatu zion Gobernuari; debeka zezala pospolo fabriketan adingabekoek lan egitea eta etxeko lana, eta ezar zezala gaixotasunagatiko ongintzako eta sorospenerako zerbitzu bat.

Baina astean hiru eguneko lana dekretatu zenean gertatu zen fabrikaren egoera larriena.

Emakume pospologileak fabrikan itxi ziren, eta Segundak, eredua emanda, gogor ekin zion itxita iraun zezaten. Pospologileen jarreraren aurrean, altxamendurako justifikatua baitzen, Oldar Guardiak,

Pichis izenez ezagunak, fabrika inguratu zuen. Han itxita zeuden pospologile batzuk edoskitze-aldian zeuden, eta umeak fabrikara eraman behar izan zituzten, esnea emateko.
Segunda beti izan zen izaera handiko borrokalariondratua.

SIMONE CHRISOSTOME (Hendaye 1923)

Hija de un aduanero comunista y sindicalista, había tenido una infancia feliz hasta los acontecimientos de la guerra civil española. Su padre muy comprometido políticamente observaba muy atentamente los acontecimientos de la guerra y tenía sobre la pared de la cocina un mapa de España sobre el que seguía la evolución del conflicto. Contaba que fue el último en atravesar el puente internacional de Santiago antes de su cierre por los franquistas.

Simone junto a otros jóvenes hendayeses compartía hasta su propia comida con los republicanos españoles que huyendo de la dictadura se habían refugiado en Hendaya esperando un pronto regreso.

Arrestada el 1 de abril de1943, fue encarcelada en la prisión de Angers y posteriormente en Romainville-Paris, y en agosto de ese mismo año fue deportada al campo de concentración de Ravensbrück.

Con apenas treinta kilos de peso y llena de llagas fue liberada por las fuerzas soviéticas a finales de mayo de 1945 después de haber pasado 26 meses en cautividad. Es una de las últimas supervivientes de un campo donde más o menos 132.000 mujeres y niños fueron deportados, y alrededor de 90.000 fueron exterminados.

Aduanazain komunista eta sindikalista baten alaba, haurtzaro zoriontsua izan zuen harik eta Espainiako gerra zibileko gertaerak gertatu ziren arte. Bere aita politikarekin oso konprometitua zegoen; arreta handiz jarraitzen zituen gerrako gorabeherak eta sukaldeko horman zeukan Espainiako mapa batean jarraitzen zuen liskarraren eboluzioa. Kontatzen zuen azkena izan zela Santiagoko nazioarteko zubia frankistek itxi aurretik zeharkatzen.

Simonek, Hendaiako beste gazte batzuekin batera, bere jana ere elkarbanatzen zuen diktaduratik ihesi Hendaian laster itzultzeko itxaropenez errefuxiatu ziren espainiar errepublikarrekin.

1943ko apirilaren 1ean atxilotu egin zuten eta Angerseko presondegian lehenik eta Romainville-Parisekoan ondoren klartzelaratuta egon zen, eta urte horretako abuztuan Ravensbrück-eko kontzentrazio eremura bidali zuten.

Hogei kilo eskas zituela eta zauriz beterik askatu zuten sobietarrek 1945eko maiatzaren bukaeran, preso 26 hilabete egon ondoren. 132.000 inguru emakume eta haur egon ziren eta 90.000 inguru exterminatu zituzten eremu batetik bizirik iraun duen azkenetakoa da.

SORNE UNZUETA

(Bilbo 1900 – Urdulitz 2005)

Sorne Unzueta Utarsus ezizenez ezaguna zen bizkaitar irakasle eta idazlea umezurtz geratu zen 16 urte zituela, eta izeba batekin bizitzera joan zen, eta harengandik ikasi zuen euskara. EAJn sartu zen eta bertan Jose Antonio Agirreren, Jesus Maria de Leizaolaren eta Lizardi eta Lauaxeta idazleen lagun egin zen.

Leizaolaren aginduetara dokumentuak klandestinitatean pasatzen jardun zuen okupatua zegoen Frantziaren eta Frantzia librearen artean. Bera zein bere senarra frantziar erresistentzian egon ziren.

Nahiz eta hasiera batean Sabino Aranaran jarraitzaile izan zen, bere bizitzaren azken aldian ulertu zuen bizitza honetan garrantzitsuena gizaki guztien arteko anaitasuna zela eta dela.

Bere borondatez Frantziara exiliatu zen, eta ez zen Euskal Herrira 1953 arte itzuli.

Profesora y escritora vizcaína, Sorne Unzueta, conocida por (Utarsus) quedó huérfana a los 16 años pasando a vivir con una tía de quien aprendió el euskera. Entró en el PNV donde hizo amistad con José Antonio Aguirre, Jesús María de Leizaola y los escritores Lizardi y Lauaxeta.

Bajo las órdenes de Leizaola se dedicó al traslado clandestino de documentos entre la Francia ocupada y la Francia libre. Tanto ella como su marido formaron parte de la resistencia francesa.

Aunque en un principio siguió la sombra de Sabino Arana, al final de su vida comprendió que lo importante de la vida era y es la hermandad entre todos los seres humanos.

Exiliada voluntariamente en Francia, no regresó a Euskal Herria hasta el año 1953

VICTORIA KENT SIANO (Málaga 1898 - N.Y. 1987)

Política y jurista española. Fue la primera mujer española que intervino como abogado ante los tribunales. Defendió a los encausados por la sublevación republicana de Jaca en 1930.

Afiliada al Partido Radical Socialista, obtuvo un acta de diputada en las elecciones de 1931 y durante el debate parlamentario del proyecto de constitución, se opuso a la concesión del sufragio activo de la mujer en igualdad de condiciones con el hombre, por considerar que la falta de formación de las mujeres no garantizaba el apoyo a una república liberal y democrática.

Designada durante la II República directora general de prisiones (1931-1934), alcanzó gran popularidad por sus intentos de reforma del sistema penitenciario español.

Fue socia fundadora y vicepresidenta del Lyceum Club creado en Madrid (1926) para debatir libremente todos los problemas de la condición femenina. Fue elegida diputada en las elecciones de 1931 y 1936. Exiliada al término de la Guerra Civil, marchó a Francia trasladándose posteriormente a México. Desarrolló una importante labor intelectual desde la dirección de la revista Ibérica. Publicó también obras como Cuatro años en París (1947) y Cuatro años de mi vida (1978). En 1978 regresó a España, aunque siguió manteniendo su residencia en Nueva York, ciudad donde murió.

VICTORIA KENT SIANO (Málaga 1898 - N.Y. 1987)

***P**olitikari eta jurista espainiarra. Lehen emakume espainiarra izan zen epaitegi aurrean abokatu jarduten. Jacan 1930ean errepublikaren alde matxinatzeagatik auzipetuak defendatu zituen.*

Partido Radical Socialistako afiliatua, diputatu-akta lortu zuen 1931ko hauteskundeetan, eta konstituzioaren proiekturako legebiltzarrean egin zen eztabaidan, aurka egin zuen emakumeek gizonezkoen baldintza beretan botoa eman zezaten, uste baitzuen emakumeen prestakuntza ezak ez zuela bermatzen haiek errepublika liberal eta demokratikoa babestuko zutenik.

II. Errepublikan, presondegietako zuzendari nagusi izendatu zuten (1931-1934); ospe handia hartu zuen, Espainiako presondegietako sistema eraberritzeko ahaleginak egin zituelako.

Madrileko Lyceum Clubeko bazkide sortzailea (1926) eta presidenteordea izan zen; emakumezkoen berezko arazo guztiak aske eztabaidatzeko sortu zuten. Diputatu hautatu zuten 1931ko eta 1936ko hauteskundeetan. Gerra Zibila amaitu zenean, Frantziara atzerriratu zen, eta gero, Mexikora. Lan intelektual handia egin zuen Ibérica aldizkariaren zuzendaritzan. Lan batzuk ere argitaratu zituen, hala nola, Cuatro años en París (1947) eta Cuatro años de mi vida (1978). Hain zuzen, 1978an itzuli zen Espainiara, nahiz eta bizilekua artean ere New Yorken eduki zuen; hiri horretan hil zen.

ZENOBIA CAMPRUBÍ AYMAR

(Malgrat de Mar *Bartzelona 1887 – Puerto Rico 1956)

Bederatzi urte zituela, Estatu Batuetara joan zen bere amarekin. Han bizi izan zen 1909 arte, eta harremanetan jarri zen feminismo amerikarrarekin.

Nerabezarotik, ipuinak idazten hasi zen gaztelaniaz eta ingelesez, eta bere literatur dohainak garatzen.

1909 eta 1910 artean, La Rábidan egon zen. Han, eskola bat inprobisatu zuen, herrixkako umeei irakasteko. Artikuluak idatzi zituen eta Espainiako herri poesiarekin zaletu zen. 1910etik aurrera, Madrilen bizi izan zen.

1916an, New Yorken ezkondu zen Juan Ramon Jimenez poetarekin. Une horretatik aurrera, bere bizitzaren ardatza izan zen konpromisozko gizarte-jarduerei ekitea. 1919an, "La Enfermera a Domicilio" elkartea sortu zuen Bartzelonan. Irabazi asmorik gabeko gizarte-zerbitzu kliniko baten antzekoa zen. Bere nahia eta grina ez zen literatura, baizik eta ideal bat lortzea, eta bere bizitzako arrazoi bihurtu zuen Juan Ramon Jimenez.

1936ko abuztuan, ezkontideek bira bati ekin zioten: Kuba, Estatu Batuak, Buenos Aires eta Puerto Rico; hor Zenobia irakasle izan zen Río Piedraseko Unibertsitatean. 1951n, minbizitik operatu zuten Bostonen. 1954an, Puerto Ricon jarri ziren bizitzen, Juan Ramonek ezin batzituen jasan Estatu Batuak.

Espainiako lehendabiziko feminista handitzat hartua izan da, eta kide goratua izan zen, Victoria Kent-ekin batera Lyceum Club Femenino-n. Klub horretatik, etengabean aldarrikatu zuen emakume gehiagok egon behar zutela gizarteko eremu guztietan. Bere ekimen gizatiar ugariren artean, nabarmentzekoak dira Gerra Zibilaren biktima ziren ume espainiarren alde egindako kanpainak; New Yorketik egin zituen kanpaina horiek.

Letren alorrean egin zuen jardunetik, Rabindranath Tagore-ren lanaren gaztelaniazko lehen itzulpenak nabarmentzen dira.

1956ko urriaren 28an hil zen; bere senarrak Literaturaren Nobel Saria jaso eta haindik bi egunera, hain zuzen.

ZENOBIA CAMPRUBÍ AYMAR

(Malgrat de Mar *Barcelona 1887 – Puerto Rico 1956)

A los nueve años, viaja a Estados Unidos con su madre, lugar en el que residirá hasta 1909 y entrará en contacto con el feminismo americano.

Desde su adolescencia, empezó a escribir cuentos en castellano y en inglés, y a desarrollar sus dotes literarias.

Entre 1909 y 1910 estuvo en La Rábida. Allí improvisó una escuela para enseñar a los niños de la aldea, escribió artículos y se aficionó a la poesía popular española. Desde 1910 vivió en Madrid.

En 1916 se casa en Nueva York con el poeta Juan Ramón Jiménez. A partir de este momento, su vida se centró en llevar adelante actividades socialmente comprometidas. En 1919, funda en Barcelona la asociación "La Enfermera a Domicilio", una especie de servicio social clínico sin fines lucrativos. Su ambición no residía en la literatura, sino en alcanzar un ideal e hizo de Juan Ramón Jiménez una razón de su vida.

En agosto de 1936 el matrimonio inicia un periplo en el que recorrerán Cuba, Estados Unidos, Buenos Aires y Puerto Rico, donde Zenobia trabajó como profesora en la Universidad de Río Piedras. En 1951 se somete a una operación de cáncer en Boston. En 1954 se instalan en Puerto Rico, porque Juan Ramón no soporta los Estados Unidos.

Está considerada como una de las primeras grandes feministas de España, miembro destacado del Lyceum Club Femenino junto a Victoria Kent, desde el que reivindicó constantemente una mayor presencia de la mujer en todos los ámbitos de la sociedad. Entre sus muchas iniciativas de carácter humanitario, destacaron varias campañas a favor de los niños españoles víctimas de la Guerra Civil, realizadas desde su residencia en Nueva York.

De su actividad en el mundo de las letras, sobresalen las primeras traducciones al castellano de la obra de Rabindranath Tagore.

Falleció el 28 de octubre de 1956, dos días después de que su esposo recibiera el Premio Nobel de Literatura.

MAISTRAK

Errepublikako ikastetxeak, bost urtean hamazazpi milatik gora eraiki ziren, maistra gaztez bete ziren.

Argazkian irakasle-ikasketak 1934an bukatu zituzten neskatxa talde bat, gertaera ospatzeko otordu batean bildurik.

MAESTRAS

Los colegios y escuelas de la Republica más de diecisiete mil construidos en cinco años, se llenaron de jóvenes maestras.

En la foto, grupo de muchachas que terminaron en 1934 la carrera de Magisterio, reunidas en un banquete para festejar el acontecimiento.

CERILLERAS DE PURO FUEGO

No se trata aquí de hacer la historia de las fábricas de cerillas en nuestra ciudad. Hubo varias de propiedades distintas, aunque todas ellas bajo el dominio, y llegado el caso, la explotación, por parte de algunas familias adineradas de la ciudad.

La fabricación de cerillas en nuestra ciudad, conoció diversos avatares. Hubo fábricas de este producto en Azkenportu, y en las proximidades de la calle Santa Elena que al fin convergerían en la industria, de considerable volumen, construida al lado de la carretera de Behobia, a media distancia del casco urbano. Es la que todos hemos conocido. No queda nada de ella salvo esa chimenea de ladrillo rojo enhiesta y algo desafiante como recordando la fortaleza moral de de quienes allí trabajaron y allí lucharon.

Se trata de hacer un bosquejo breve de las cerilleras, de alguna de ellas, que demostraron un singular arrojo e inteligencia en los derechos de las que allí trabajaban. Estas luchas se desarrollaron de manera especial e intensas en el período comprendido entre los años 1922-1936. Abarcan parte de la Monarquía alfonsina, con la dictadura primorriverista en medio, y la Segunda Republica. Fueron luchas tenaces en las que las cerilleras irunesas demostraron un vigor combativo difícilmente superable.

He aquí los rasgos más notables de algunas de ellas en esa lucha, que tenía por meta, el reconocimiento de la dignidad y con él la mejora de unas condiciones de trabajo, penosas en algunos casos. Además con su ejemplo, transmitieron a todas sus compañeras un espíritu de lucha que sirvió para crear una unión que fue uno de los pilares de su fortaleza.

EMAKUME POSPOLOGILE SUTSUAK

***K**ontua ez da hemen gure hiriko pospolo-fabriken historia kontatzea. Bat baino gehiago izan ziren, jabe desberdinenak, baina guztiak zeuden hiriko familia dirudunetako batzuen menpe, eta zenbait garaitan esplotazioaren menpe.*

Gure hirian pospologintzak hainbat gorabehera ezagutu zituen. Pospolo-fabrikak Azkenportun eta Santa Elena karrikaren inguruan izan dira; azkenean, lantoki horiek industria bakar batean bilduko ziren, Behobiako errepidearen ondoan kokatu zen industria nahiko handian, hirigunetik hain urruti ere ez. Horixe da guztiok ezagutu duguna. Fabrika horretatik ez da ezer geratzen, adreilu gorriko tximini batez aparte, bertan lan eta borroka egin zutenen adore ikaragarria gogoratu nahirik bezala, zutirik eta harro antzean agertzen dena.

Hemen emakume pospologileen zertzelada laburra egin nahi da, emakume haietako batzuena; izan ere, sekulako ausardia eta adimena erakutsi baitzuten bertan lan egiten zuten emakumeen eskubideen alde. Borroka horiek 1922-1936 bitartean gauzatu ziren bereziki eta indar gehienez. Alfontsoren monarkiaren zati bat, tartean Primo de Riveraren diktadura, eta amaieran Bigarren Errepublika, garai horietan zehar egin ziren borroka haiek. Borroka zailak izan ziren, eta irundar emakume pospologileek gainditzen zaila litzatekeen borrokarako kemena erakutsi zuten.

Hona hemen, duintasuna aitortzea, eta horrekin batera, askotan penagarriak ziren lan-baldintzak hobetzea helburu zuen borroka hartan, emakume horietako batzuek zituzten ezaugarri nagusiak. Gainera, beren ereduari esker, lankide guztiengana zabaldu zuten beren indarraren oinarrietako bat izan zen elkartasuna sortzeko balio izan zuen borroka-gogoa.

CONCEPCIÓN COSTALEIRO OSÉS (Irun 1908 – 1996)

Irunen jaio zen, Peña kalean, 1908ko martxoaren 17an.

Zenbait urtetan, poxpolo-fabrikan aritu zen lanean, eta Larretxipi kalean zegoen sagardotegi batean ere bai. Ramón Urtizberea Aizpiolearekin ezkondu zen, eta Kontrakale kalean bizi izan ziren. Han jaio ziren Francisco eta Gabriel bere bi semeak.

Gerrako inguruabarrak zirela eta, bere semeekin batera Espainiatik irtetera behartu zuten, eta Frantzian jarri zen bizitzen, aldi laburrerako baina.

Nahiko azkar itzuli zen, Kataluniatik barrena. Han, hilabete batzuk igaro zituen.
Iruna behin betiko itzuli zenean, ez zeukan ezertxo ere, eta bere seme Francisco hil egin zen handik hilabete gutxira, oraindik umea zela.

Ramon senarra, eta bere anaia Gabriel ere bai, preso egon zen Frantzian, Gurseko internamendu eta deportazio eremuan.

Concepcion Irunen hil zen, 1996ko abuztuaren 18an, 88 urte zituela.

Nace en Irun, en la calle Peña, el 17 de Marzo de 1908.

Trabajó durante varios años en la fábrica de cerillas y en una sidrería situada en la calle Larretxipi. Se casó con Ramón Urtizberea Aizpiolea y tuvieron su domicilio en la calle Contracalle donde nacieron sus dos hijos, Francisco y Gabriel. Las circunstancias de la guerra la obligan a salir de España junto con sus hijos y fija su residencia en Francia durante un corto período de tiempo.

El retorno no se hace esperar y retorna por Cataluña donde pasará unos meses.
Cuando regresa definitivamente a Irun no tiene absolutamente nada y su hijo Francisco muere a los pocos meses siendo todavía un niño.

Su marido Ramón, al igual que su hermano Gabriel estuvo preso en el campo de internamiento y deportación de Gurs en Francia.

Concepción fallece en Irún el 18 de Agosto de 1996, a la edad de 88 años.

JOSEFINA MARTINEZ

En 1.928, tenía treinta y dos años. La fábrica se ve de nuevo afectada por una de aquellas crisis que tenían ya un carácter crónico. En este caso se trataba de que la Empresa había sido advertida por no cumplir el mandato legal de la jornada de ocho horas. Y ese incumplimiento no supone otra cosa que una forma inicua de explotación. Una más, especialmente cuando uno de los voceros de los dueños alega que el incumplimiento está justificado por exigirlo así los compromisos adquiridos con el Estado que obligan a una mayor producción. Josefina junto a otras tres compañeras se opone a tamaña e indecente argucia. Y encabeza una huelga que duraría un mes y en la cual, de nuevo las cerilleras se encierran en la fábrica. Josefina al tiempo que sostiene una pugna con la patronal, se ocupa de que sus compañeras mantengan la indispensable firmeza, lejos de la claudicación.

1928an hogeita hamabi urte zituen. Lantokian dagoeneko kroniko bilakatua zen krisialdi haietako bat zegoen berriz ere. Oraingoan zera zen, enpresari ohartarazpena egin ziotela zortzi orduko lanaldia egiteko lege-agindua ez betetzeagatik. Eta ez betetze hori, berdintasunaren aurkako zapalketa modu bat besterik ez zen. Zapaltzeko beste modu bat gehiago, bereziki jabeen bozemaileetako batek zera adierazi zuenean, lege hori ez betetzeko arrazoiak zeudela, izan ere Estatuarekin hartutako konpromisoek gehiago ekoiztera behartzen zutela. Josefina eta bere beste hiru lankide horrelako amarru lotsagarriaren aurka jarri ziren. Eta hilabete iraungo zuen greba antolatu zuen, eta denbora horretan emakume pospologileak fabrikan itxi ziren berriro ere. Josefina saiatu zen, patronalarekin borrokan zihardueen bitartean, bere lankideek beharrezkoa zen indarra izan zezaten, inola ere amore eman gabe.

LUCIA DORRONSORO

Alcanzaba la edad de veinte años a la llegada de los años treinta. Era una joven instruida, aunque las exigencias de una familia verdaderamente pobre, le obligaban a llevar un jornal a casa.

Al vigor de Segunda López unía ella una gran facilidad de palabra. Naturalmente no se trataba de una palabrería hueca, de esa que ha tenido y tiene tantos ejecutores. Razonaba con precisión y, cuando junto a Segunda, tenía enfrente a los propietarios de la fábrica, éstos quedaban desconcertados ante aquellos razonamientos tan difíciles de desvirtuar, pero que se dejaban de lado por quienes iban ya con el propósito preconcebido de rechazar las peticiones que se les hacían, que no eran otra cosa que la exigencia de los derechos elementales. Y ante aquellas negativas, perfectamente obtusas e interesadas, la muchacha de inteligencia clara se transformaba en una persona plena de vigor, de coraje y de arrojo. Y aquellos argumentos suyos, cínicamente ignorados, eran sustituidos por una actitud física en la que el valor sobresalía tanto como la inteligencia.

Hogeita hamargarren hamarkadan hogei urte zituen. Gazte ikasia zen, nahiz eta familia benetan behartsukoa izateak etxera jornal bat eramatera behartzen zuen.

Segunda Lópezen kemenaz gain emakume honek hitz egiteko sekulako erraztasuna zuen. Jakina, ez zen hainbeste gauzatzailek izan duen eta duen zentzurik gabeko hitz-jario hori. Zehaztasun handiz arrazoitzen zuen eta, Segundarekin batera, lantegiko jabeak bere aurrean zituenean, haiek zur eta lur geratzen ziren, hain zailak ziren, izan ere, baliogabetzen haren argudioak; baina arrazoi haiek denak alde batera uzten zituzten, aldez aurretik erabakia izaten baitzuten egiten zizkieten eskariak –oinarri-oinarrizko eskubideen eskaria- aintzat ez hartzea. Eta itsu-itsuan eta interesek bultzatuta ematen zizkieten ezezko haien aurrean, adimen argiko neskatxa hau ausardiaz, kemenez eta kuraiaz betetako pertsona bilakatzen zen. Eta zinismo handiz baztertzen zituzten bere argudio haien ordez, ausardia adimena bezainbeste adierazten zuen jarrera fisikoa erabili behar izaten zuen.

MARTA ECHEGARAY

Hogeita hamargarren hamarkada iristen ari zenean, Marta zen, seguraski, lantegi osoko pospologilerik zaharrena. Bazituen ordurako hirurogeita bi urte, baina ez zen batere gutxitua bere izpiritu borrokatzailea. "Lasa bastas" izeneko sailean lan egin zuen; han barneko kartoizko estutxea egiten zen, eta bertan sartzen ziren pospoloak, arraspadun kutxatxoaren barnean.

Erreibindikazioren bat egin behar zen bakoitzean Josefina, Lucía eta Segundarekin elkartzen zen, eta lankide guztien errespetua eta Irun herriaren zati handi baten miresmena zuen laukotea osatzen zuten; izan ere, Irun herriak jarraitu beharreko eredutzat zeuzkan lau haiek bereziki, jendeak Irun erraz menderatzen ez zen herri bezala ikus zezan nahi bazen. Martaren adin handiak, langile nekaezina izateak, goratu egiten dute bere figura, eta berretsi egiten da haren goi-maila gizatasunari eta klaseari dagokienez.

Al acercarse la barrera de los años treinta, es seguramente la cerillera de más edad de toda la fábrica. Tiene la friolera de sesenta y dos años, pero no ha mermado para nada su espíritu luchador. Trabaja en la sección llamada de lasa bastas, donde se fabrica el estuche interior de cartón y van depositadas las cerillas, dentro del envase con raspa.

Cada vez que hay que luchar por una reivindicación se une a Josefina, Lucía y Segunda, formando un cuarteto que merece en primer lugar el respeto de todas sus compañeras y por otra parte la admiración de buena parte del pueblo de Irun, que vé en aquellas mujeres, en aquellas cuatro especialmente un modelo que se debe imitar, si se quiere que Irun sea también conocido como un pueblo en el que la clase trabajadora no se deja esclavizar fácilmente. Los muchos años de Marta, su condición de trabajadora incansable, enaltecen su figura, reafirmando así la alta condición humana y de clase.

MICAELA LECUONA ARRUABARRENA (Irun 1905-1987)

Micaela nace el 12 de Febrero de 1905 en la calle Santiago y fue una de tantas irunesa que sin tener relevancia política ni sindical alguna hicieron posible el florecimiento de la ciudad. A los catorce años junto con su hermana Juanita comenzó a trabajar en la en la sección de empaquetados de la Fábrica de Cerillas.

Contrajo matrimonio con el también irunés, José Mª Estagnan Santesteban, empleado de Wagon Lits, al cuál al poco tiempo de la boda le destinan a Madrid, donde permanecen durante todo el período de la guerra civil.

Una vez finalizada esta, pueden regresar a Irun, su pueblo, donde tienen dos hijos. Falleció a la edad de 82 años.

Micaela 1905eko otsailaren 12an, Santiago kalean jaio zen. Nahiz eta politikaren zein sindikalismoaren aldetik ez nabarmendu, beste irundar batzuekin batera, garrantzitsua izan zen bere hiriaren loratzean. Hamalau urte zituelarik, bere ahizpa Juanitarekin hasi zen lanean, pospolo-fabrikaren paketatuen atalean.

Wagon Lits-eko langilea zen José Mª Estagnan Santesteban irundarrarekin ezkondu zen. Ezkondu eta handik gutxira, Madrilen eman zioten lantokia eta bertan izan ziren gerraldi osoan.

Gerra bukatu ostean, beren herrira, Irunera itzuli ahal izan ziren, eta han jaio ziren beren seme-alabak. 82 urterekin hil zen.

TRINIDAD BENGOETXEA TXAPARTEGUI
Irun 1909-1997

Participó muy activamente en las luchas mantenidas por las trabajadoras de la fábrica de cerillas en reivindicación de sus mejoras laborales y sociales. En 1936 al llegar las tropas franquistas a las proximidades de Irun, al igual que otros miles de ciudadanos, se vio obligada a cruzar el puente internacional iniciando así un exilio que duraría cinco años. Durante ese período estuvo vagando por territorio francés hasta que recibió la orden de internamiento para el campo de concentración y deportación de Gurs. No volvió a Irún hasta 1942.

Trinidad Bengoetxea bizi-bizi ibili zen pospolo-fabrikako emakume-langileen borroketan haien lan- eta gizarte-baldintzen alde. 1936an Francoren indarrak Irunen inguruetara iritsi zirenean, beste askok bezala ihes egin behar izan zuen nazioarteko muga igarota. Une hartan bost urteko erbestealdia hasi zuen. Frantzian barrena batera eta bestera ibili ondoren Gurs-eko konzentrazio-itxiturara eraman zuten. 1942an itzuli zen Irunera.

COLABORADORES / LANKIDEAK

Archivo Municipal de Irun
Asociación del Consejo de la Mujer de la Comunidad de Madrid
Ayuntamiento de Irun
Bakartxo Barandiaran
Eukene López
Fundación Pablo Iglesias
Fundación Sabino Arana
Gobierno Vasco (Dto. de Vivienda y Asuntos Sociales)
Gregorio Parraga
Iñaki Igerabide
Jaime Rodriguez Salis
Mertxe Trantxe
Nicolás Aguirre
Sagrario Villalva

IRUN, ABRIL/APIRILA 2008

www.asociacionrepublicanairunesa.org
☎669 075 423

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAK
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES